

TXOMIN IZAGIRRE

1974 — URRIAK, 13

XXXIV - garren urtea 606 - Zenbakia

zeruko ARGIA

BANAKOLA: OKENDO, 22 - DONOSTIA - TEL. 426666 - PREZIOA: 8 PEZETA

Gipuzkoako Ikastolen Elkarte - Batzaren idazkari

Ez dugu zein den eta nolakoa den esan beharrik. Oso ezaguna da ikastola inguruan eta astekari honen irakurleen artean. Lau urtez lan egin du ikastolen zerbitzuan eta Elkartearen idazkaritzan.

Oreka, egonarria, patxada eta zentzua eskatzen ditu gaurregun honelako lanbide batek. Motegi ibiltzeak hainbat honda dezake presakaegi ibiltzeak.

Heltzen utzi behar zaio uztari. Hori bai, gure esku dago askotan, heltzeko behar duen giro ona sortzea. Baina giro on hori sortzen ez dugun bitartean, alferreko eta kaltetarako dugu, uztar biltzea eta lurra aztakatzea eta zapuztea.

Laster idazkaritza utzi behar duen Txomin hurbildu gaitzaizkio ikastolen Elkarte edo Erakundeari pultsua har diezaiogun. Berau izan dugu Elkarte hau sortu zenetik gaur arte beronen lanen eta jokabideen lekuko.

—Zer diozu Gipuzkoako Ikastolen Elkarte-Batzaz?

—Izan ditu eta baditu orain ere bere akatsak eta hutsuneak. Elkartean dauden ikastolen zerbitzuan ihardun behar du. Ez da erraza zerbitzu horrek eskatzen duen oreka eta langiroa sortzen. Herrian dabilten zurrumbilo guztiek erasotzen diote. Erraz pizten dira elkarren indarrak desegiten dituzten tirabirak. Denbora asko gal erazi digute ika-mika hoiek. Enbata eta ekaitz gogor asko jasan eta garaitu behar izan du Elkartek. Baina elkarturik eta batera lan egin behar dute arlo askotan ikastolek. Beharrezkoa zaigu erakunde bat, Euskal Herri osoa zabalduko den erakunde indartsu bat.

—Zerbait jakina eta mugatua erantzun diezadazu, zer egin du Elkartek aurtengo urtean?

—Zerbitzu txiki asko pilatzen da urtean zehar. Lan asko dago. Ezin iritxirik gabilta. Baina aurtengo urtean hiru ekintza haundiri eman zaie hasera. Oso pozik bidaltzen

dituzte guraso gehienek beren haurrak ikastolara. Baina askoren barruan kezka hau zegoen: "ikasten ote dute gure haurrek? Beste mailakako ikasketak egiteko gai egingo ote dira?". Ez gintezkeen itsu-mustuan ibil. Hiru sikologok ikastolako haurren jakitate maila aztertu dute. Zorionez oso ondo daudela ikusi dugu. Jakin beharrezkoa zaigu gerorako erabakiak har ditzagun ikastolak ugaltzen ari diren ala ez eta ikastolako hezi-erara amaitutakoan zer bide aukeratuko duten gure haurrek. "Siade-co"ren esku utzi dugu alderdi hau. Eskola-liburuen beharra ere ikaragarria zegoen. Lan asko egin da behar honi erantzun nahiaz.

—Eskola-liburuen premia aipatu didazu. Horretaz kezkatutik eta zerbait egiten ari den jenderik ere bada. Zergatik erdal testioak eskaratzeari ekin diezue?

—Euskaldunok, eta euskal pentsaeraz eta izaeraz, eginiko eta oratutako eskola-liburuak nahi ditugu geuk ere. Ez diogu horretan inori oztoporik jarriko. Horretara

eragin nahi genieke hortaz kezkatutik eta arduraturik dauden gutici. Baditugu horretan diharduenekin harremanak. Baina hori luze joko duen eta ondo egin behar den lana dugu. Ez daiteke bizpahiru lagun esku utz gainera. Jende askoren iritzia haintzakotzat hartuz egin behar da. Euskaltzaindiaren, irakasleen, gurasoen eta abarren oniritzia behar dutela uste dugu ikastolako eskola-liburuek. Eman dezala bakoitzak berari dagokion alorrean bere oniritzia. Bienbitartean hutsunea nolabait betetzearren erdal testioak eskaratzeari ekin diogu. Eta euskaraturik daude.

—Noizkorako izango dituzte haurrek eskuetan?

—Uste baino luzeago joko du, noski, denak inprimatzeak. Zirikari den norbaiten jokabideak ez ditu gauzak bat ere hobetu. Oraingoz multikopiaz aterako ditugu. Eguberriak arteko materiala behintzat. Euskaltzaindiak ere bere denbora behar du lanak orrazten eta zuzentzen. Guk, berri, ez diogu ikastolari ezer eskaini nahi Euskaltzaindiaren oniritziarik gabe.

—Zer dela eta horrenbestearinoko begirunea Euskaltzaindiari?

—Euskal Herriak ez dezake irau erakunde batzu gabe. Euskara mailan, dagoena, nahi dugu indartu. Ez dugu hoberik ikusten. Irakaskintzan ere horixe berbera lortu nahi genuke. Beste hainbeste egin behar dela uste dugu beste alor guztietan ere. Guk Euskaltzaindiaren nortasuna eta itzala haintzakotzat daukagu. Talde gehiegi eta zatiketa gehiegi dauka lehen ere gure herriak gauza onerako. Guk ez dugu edozein euskara nahi eta bide batez Euskaltzaindiaren nortasuna aitortu eta indarrerazi nahi dugu.

—Badiela beste itzulpen batzuk eta zuek "itzulpenaren itzulpena" egin nahi izan duzuela irakurri dut oraindik orain?

—Herri bakoitzeko ikastolak bere bidea hartu eta erabakia dauka euskara kontuan. Gehienek Euskaltzaindiak markatutako bidea hartu dute. Eskola-liburuetarako egin zen bileran bi ikastolek bakarrik eskatu zuten euskalkietan



eginak izan zitezela. Halere bi joeratako eskaini genien laguntza. Inor ez dezakegu bazter. Are gutxiago gehiengo. Eta biak egiteko moduan ginen, ANAIA argitalpena prest bait zegoen horretarako. Ez da, beraz, egia "geiegikeriatan dirua erretzea" dela. Guk ez genuen gehiengo zerbitzurik gabe utzi nahi.

—Beharrezko lanak egiten ari zarete ezpairik gabe. Baina irakaslea da zenbait gauzatan ikastolaren ardatz. Zer egiten du Elkartek maixugaik euskalduntzeko?

—"Egoitza" bat hartu zuen orain dela biurte horretarako. Baina honelako egoitza batek gure esku ez dauden erantzunkizuna eta arduraz eskatzen ditu. Horren ordez 7.500 pezetako 15 beka emango dizkiogu maisu-ikasketak hasi dituenari. Horretarako herriko edo bailarako ikastolaren idazkariak izenpetutako agiria ekarri beharko du. Elkartek antolatzen dituen euskal ikastaro batzuetara joan beharko du. Ikastolan lan egiteko hitza eman beharko du maixutza buka dezanean.

—Ikusten denez, asmo ederrak dituzue buruan eta lan haundiak eskuraten. Nondik sortzen duzue dirua?

—Herri bakoitzeko ikastolak ematen dio Elkarteari zerbait. Ez denek, noski. Atzeraturik ere badabil zenbait. Dirua behar du. Elkartek zerbait egingo bada. Bada, gure ikastola bakoitzak nahiko lana izaten duela urteroko zorra edo koska berdintzen. Halere zerbitzu hauek denak nahi baditu nahitaez luzatu behar dio eskua Elkarteari. Baina beste diru-iturri batzuk ere aurki nahi genituzke. Dirua ematen ikasi behar dute eus-

kaltzale dirudunek. Hasiak gaude ate joka.

—Taldea Bateragilea" deitzen diozue ikastolen Elkartearen batzordeari. Urtero berritzen da gainera, ikusten denez, Zer eskatuko zenioke batzorderako aukeratzeko ordezkaritari?

—Bailaraka eta urtero berritzen dira "Taldea Bateragilea"ko gizonak. Lanerako era eta gogo eskatuko nitzioke horretarako aukeratu denari. Lan asko dago egiteko. Arretaz eta gogatsu hartu behar da kargu hau. Jai egunetan edo gaueetan eta sarri izan ohi dira bilerak. Ez da norbait aukeratu behar dela eta nolana aukeratu behar. Horretarako egokien dena hautatzen salatu behar da. Udazken honetan berrituko da batzorde hau. Eginkizun eta erantzunkizun honetaz jabetzea nahi genuke ikastola bakoitza. Lanari, familiari eta lagunarteari ordu asko kentzea eskatzen du hemen iharduteak.

—Azkeneko galdera, Txomin. Uztara omen zoaz idazkaritza. Zer eskatuko zenioke ondorengoari?

—Direnak direla "Taldea Bateragilekoak", gehiengoaren iritzia errespetatzen jakin dezala.

—oOo—

Eskerrik asko, Txomin. Urte zailak eta bihurrietako idazkaria izan zaitugu. Buruhausteak buruhauste eta nekeak neke Elkarteari irau dezan lagundu diozu. Irakasle kintza mailan herriak erakunde bat izan dezan ahaleginak egin dituzu. Inork eskerrik askorik eman ez badizu ere, jaso zazu "Errialderen" esker ona.

ERRIALDE

NON ZER

Bertsolariak 3 gn.

Irudigintza eta antzerkia

Lete 6 gn.

Donostiako zine-jaialdiaren oihartzunak

Zalakain 7 gn.

Portugalgo eliza

Arostegi 11 gn.

BERTSOLARI ZAHARRAK

AZAROAREN 17 an

Hilabeteri begira jarriak gaude. Azaroaren 17an egingo zaie bertsolari zaharrei omenaldi sonatu hori. Egun hori eta bertsolari hoi enizen gogoratuz hamabost bertsoroki bidaltzen dizkigu "Muño" zahararak.

Erabat alfertua ahal zegoen esan genion, ez zuela bertsorik jartzzen eta. Lanpeturik zegoela erantzun zigun. Halere hamabost bertsoroki jar- teko aldatzea eta beta izan ditu 76 urteko aitona argi honek.

— 1 —

Gizon jator bat inguratu zait itzegileko gogotsu, bazirudien ezagutza zitziola atsegitu. Argazki tresnaz egin ondoren beronek zenbait zerbitzu. Gero esan zidan aitazu, arren, bertsorik ez al dezuz?

— 2 —

Nere burua daukadan arren lotua eta nagia, uzkatunak uxaturik eman zagan arpegiya, ezagutuko duten ustetan or-emengo eroriya, jardun onentzen gaitzat nai nuke aurtengo omenaldiya.

— 3 —

Zeruko Argiaren alea badaukatu eskuratuta, bertsolari zarren taldea argazki inguratuta, bere lankide izandakoak Uztapidek agurtuta. Zenbait bid bideldatu nai det oleri begiratu.

— 4 —

Joxe Inazio eta Klemente orain German eta Simon, oiekin ondo igarotzea ez al zaigu izango on? Bekokidunak ote diraden ere pentatsion banegon, azalez ez igartzen baiña biotz mardula nun dagon.

— 5 —

Saikolarekin, Franzisko Mari, Joxe Mari ta Zubeltzu, kolko aundiko gizon bikaña emen agertzen zera zu. Ezin aritu, izatearekin Uztapideren maisu. Al baldin badet besarkatzera inguratuko naizazu.

— 6 —

Bautista eta Joxe Kruz emen, gero Tomas da Lorenzo, Juan da Kosme, nik obeko det oiei poliki eraso, bestela laster egingo naute naiz erati ta naiz jaso Orregatik, mesedez, neri ez egin ihola kaso.

— 7 —

Zer besterik esan nezake nik omenaldi onetaz, bakarra baiño egokiago gera batera eskotaz. Bestela egon bearko gendun erdi bildur, eta lotsaz. Ausardisugo izango gera bata bestearen laguntzaz.

— 8 —

Billera ori omen daukagu guk datorren azaroan. Euskalerriko kantari zarrak luze ta zabaleran. Ikasbide bat ona ematen saia gure zartzaroen, bertsolaritzak irauan al dezan maitasunezko giroan.

— 9 —

Nere Jainkoa, Zagan sinistuz euskaldun zarren antzera, Zure laguntzaz bizi izanak iritxi gera zartzera, ta inguratu samarrak gaude bizi mugaren ertzer, kristautasunak beartzen gaitu ontan areta jartzera.

— 10 —

Nola ez geran jai izanak gu betriko onera, laster liteke azkena eta orduan betraunera. Bearezko da begiratzaz gure biotz barrena, nork lagunduko digun sartutzen betiko zorionera.

— 11 —

Urteen zama astuna eta geroni indarrik gabe. Azken pausok zuzendutako izango al gera trebe. Sinismena da aitortu zagan



Joxe M. Aristondo "Muño"

kristautasunaren abe. Eliz Amaren erakutsiak emango digu adore.

— 12 —

Orra kasikan uste gabeen iritxi azken garaia. Nolabaiteko izan geranak bildu gaitzen arraira. Luza baino len bukatutik degu emengo kondaira. Eta betiko bizi tokitzat beiratu zeru sapaira.

— 13 —

Degun guztia opa dunari ez eman ordain zikoitza. Berarengatik maita ditagun guztia eta bekoitza. Gure armarik indartsuena uste oneko otioitza, onen bitartez iritxi da azken gabeko garaitza.

— 14 —

Neri eztenka salatu ziñen lo zorrotik enatzen. Genzaken baiño ezer gelago gauza zalila da eskaintze. Gaizki esanen barkazioa det oraingan eskatzen eta luze ari naizela ere asi naiz kezkatzen.

— 15 —

Auekin aldi bateko aña izango dala derizat. Ontan bukatzen dirade Muño aitona onen emaltzak. Beste albeste egiten badu bertsolari zar bakoitzak naiko krisailu izango dezu Zeruko Argiarentzat.

MUÑO



Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA

Nafarroa, Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoek argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Bur-lada - IRUINEA).
Donostia: Okendo, 22
Tel. 41 95 88

ARPIDE SARIA:
Barruan 350 pezeta
Korreo batasunetako herrietan 400 pezeta
Atzerriakotako bes-tre herrietan 420 pezeta
Airez Aldez aurretik galdetu
Salmenta (ale bakoitza) 8 pezeta

Moldiztegia eta Idazkola:
"Gráficas Navas"
A. Adoain, 1. IRUINEA
D.L.: NA. 80-1963

Bertsolari berrientzat, IV garren zepai saria

ZALDIBIAKO PATXI IRAOLA TXAPELDUN

Iraillaren 22an eta 28an jokatu zan, Idiazabalen, delako Txapelket-a zu.

Amaka bertsoroki saio entzun eta ikusiak gara geure denboran, baiña, ez gara gogoratzen Txapelketak batera, egun batean, albeste bertsolari inguratu direnik. Ogeita bi, alajaina: Bada auztaren gau er-diko ezula aña? Bai, orixe!

Bi igandetan goiz eta arratsal-dez, izan ziren bertsoroki saioak. Ara nork parte aritu zuten: Simon Azara (Brinkola), Iraola (Zaldibia), Loloia (Mendaro), Barandiaran (Lazkano), Zabala (Lexo), Zeberio (Itxasondo), Argiñarena (Errazkin, nafarra), Beitia (Eskoriatza), Etka-luze (Idiazabal), Alberro (Brinko-la), Lexoti (Olatzun), Inaki Azara (Brinkola), Narbaiza (Elbar), Zendoia (Aia), Mitxelena (Olatzun), Goiburu (Idiazabal), Agirre (Brinkola), Inarraigirre (Eskoriatza), Atolia (Aztibia), Otamendi (Aia), Urretabizkale (Astasu), Ziolar (Itziar).

Leenengo igandean, ogeita bi bertsolaritiatik, amar aukeratu zi-ren, urrenge igandean, amarrok, Txapelketaren Azkena joka zezan. Epai maia jaunok osatu zu-ten: Aita Zaval, Bordari, Luzio Gabiria eta Inozentzio Oleak. Gai-emaille, idiazabaldar Jesus Azur-mendi izan zen. Bosteko onek lan bikaña eta oso egokia egin zuen. Eta juraduak, bigarren igandean, guk aukeratu zituen: Iraola, Zabala, Zeberio, Lexoti, Narbaiza, Zendoia, Goiburu, Agirre, Atolia eta Ziolar.

Diogun leenengo igande ortan, bertsoroki egokiena botatzen zuen-arentzat, kopa eder bat zegoela eta bera Iraolarentzat izan zela. Ara zer gai eman zioten eta zer bertsoroki kantatu zituen:

"Ostok erortzen ari zaizkion ar-bolari, bi bertsoroki."

— 1 —

Ara zugaizta begira nago zu ikusirik orrela, len oso berde zunduan ura burutu zaizko orrela. Seiale au da gizaki danak bere aldi bat duela, eta aitzera ematen dezu udaizkena datorrela.

— 2 —

Ai udazkena emen degula aiatu dedan neurrian, ostoz jantzia ziñan arbola orain or buru gorrian. Bañan berriro zure ostotza sortu leike indarrian, orain galdutzen zaizun ordezko datorren udaberrian. Irakurlea, jabetuko dan bezela, Iraola, bi bertsoroki, biribil eta ja-torrak irten zitzaizkion. Beste kopa bat bazegoen bertsoroki gaitzenantzako ta ura Atolia-k etxera zuen.

BIGARREN IGANDEKO SAIOA

Goizeko ekiñaldia, Ursurango plazan izan zen. Ez dakigu zerga-tik, Bear bada, egun orretan, erri-ko Plaza Nagusian beste jaialdiren bat zegoleako edo. Saio ontan, bertsoroki onenarentzako, oraindik orain Uztapidek argitaratu duen li-buru eder ori zegoen sari bezela, Lexotik jaso zuen. Saio au entzu-teko erarik ez gertatu izan, baiña, esan zituzten, amar bertsolarik berdintu samar egon omen ziren. Arratsaldean an giñen. Bi ordu eta erdi inguru jardun ziren ber-totan. Jendea ederki bildu zen. Entzun ere oso ondo egiten zen, altavox onak jarritu zeuden eta. Era askotara probatuak izan zi-ren amar bertsolarik. Azkenean, denek "kartelaratut" zituzten eta, banan-banan, ekarriak izan ziren erriaren aurrera ondorengo bi gal auei buruz kantatzeko. Leenengo gaia. Zortziko taikian kantatzeko. Bi bertsoroki. "Pareta zuloan diruak gordetzen dituen mutil zar fiakaitz bati". Bigarren gaia. Neurria eta donua, libre. Bi bertsoroki. "Bizi diren bertsolaritiatik nor gustatzen zaiz- zu geien. Zergatik?".

Saio ontan, arrigarri ez da-ta, batzuk besteak baiño gorago ibili ziren. Bigarren gaian, au da, "bizi

diren bertsolaritiatik nor gusta- zuen zaiz geien, zergatik?", sei- zapi bertsolarik Uztapide aukera- tu zuten eta besteek Lasarte, be- rriz.

ERABAKIA

Auxe izan zan. Leenengo Patxi Iraola. Zepai zenaren kopa bere seme Alejandrok eman zion. Txa-pela ere berantentzat izan zen eta, gainera, sobre bat bere barruan di- rua zuela.

Bigarren, Lexoti. Oñek Ayunta-mentuaren kopa irabazi zuen. Gal- niera, sobrea.

Beste kopa bat ere, au Gipuz- keako Aurrezki Kutxarena, arratsal- dean bertsoroki onena botatzen zuenarentzat, Narbaizak irabazi zuen. Uztapideri abestutako ber- tsoagatik.

Gure ustez, jaialdia oso ondo era-

tua zegoen. Zorionak. Garbi ikus- ten da bertsolaritza indarrean da- goela. Bertsolari berriak erruz da- toz eta erriak oso ondo erantzun- ten du. Au pozgarri da. Jai era- tzaillek laguntza onak izan zituz- ten. Denen izenak guk ezin eman. Albeste ziren eta bildur gara, us- takaban, bat edo besteren izenik jarriko ez ote dugun. Barkatu.

Iraola bide zuzenez irabazi zuen. Oso plaza gizona da eta bes- tririk bertsoroki oso egoki moldatzen ditu. Aurrera, Patxi.

Lexotik, berri, leengo eskola zaarra darabil. Silaba asko uzten ditu, ez bertsorearen neurriagatik, bai- zik eta, bere izkera alakoa de- lako. Zaxtada ederrak sartzen di- tu. Egokiak. Eutsi, Lexoti.

Eta, lankidetzak, bai jai era-tzai- leentzako, berdin epaialerentzako eta zer esanik ez bertsolarientzako gure esku zartadarrak beroenak.

IBAI-ERTZ

BI JOKO GOGOANGARRI

MAIZ-IRUNTIBERRI

Urriaren seia egun bete eta ahaztu ezinezko gertatuko da apustuzaleen artean.

Egurdiko 12.30etan Iruntiberr-i eta Maiz korrikalarien lehia bizi- a kusi genuen Tolosako zezenplazan.

Izugarriko borroka ibili zuten au- rrenko lau kilometrotan bi korri- karek. Maiz hasi zen metro ba- tzen alde ateratzen. Baina sei- garrenetik aurrera dena aldatu zen. Maiz, ordi lanak egin zituenen, nekaten eta txuritzen hasi zela zi- ruden. Iruntiberririk hazten eta ha- zten ikusi genuen.

Iruntiberririk 31 minutu eta 43 se- gundotan egin zituen hango lanak. Lau segundo falta izan zitzaizkion Arruizko Txikiaren harropatzeko. Maizek, berri, 32 minutu eta 53 segundo behar izan zituen bere la- nak bukatzeko.

Berriz ere edonork pasako du horrenbeste denbora hamar kilo- metro egiten.

ENDAFETA-MENDIZABAL II

Arratsaldean Hernaniko "Jauregi" baserrian giñen. Endafeta eta Men-

MUTIOZABAL

Kontu emen! Euki gogoan!

Adiskide ta etxekojaunok!
Zuen enmasteentzako esku-erakutsirik onnea. Zuen sukalerako apaingarri
Eltze azkarra. Asadora-Freidora RADAR. Erre ta prejitzeako aukerakoa
SUPERCACEROLA A PRESION "RADAR"
Juegos Espátulas y juego Cubierto "RADAR"
LANTEGIA - INDUSTRIAS RADAR ESKORIATZA (Gipuzkoa)

MITXELENA

ORDULARI ETA BIXITEGIA
Del honi jarraituz bazatoz
zure erlojua KANARIAS birtan
belfio merkeago erosiko duzu

Maixin Arzu, 1

ONDARRABI

Transportes

azkar s. a.

ERAMAN-EKARRIAK, KAMIOI AUNDIAK

Barcelona Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.
Donostitik egunero:
Iruña, Bilbo, Gasteiz, Alicante, Elche, Elda, Murcia, Car- tagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca.

Astean irutan:

Malaga, Sevilla, Jerez de la Frontera, Cadiz, Lugo, Coru- ña, Orense eta Vigora joan etorriak.

Hernanirako bide nagusian, ERGOBIA auzoan, DONOSTIAN.

Urututik: 552650 - 552654

Apartado 1381

EGOERA LARRIA

Alderdi askotatik bizi dugu egoera larria. Baina une honetako ekonomia kinkak sortzen dituen egoera larria alaitu nahi genuke. Ez dugu azterketa sakona egiteko egokierarik. Oso neurturik daude gure indarrak eta argibideak.

Gizarte gaitetarako dagoen "gotzai-batzordeak" egin duen agiriari jarraituko gatazkak. Ez gaitu betetzen, baina guk ez dugu hor dagoena baino gehiago esateko aukerarik.

Egoera larri honen sustraiak ez dira aldi honetakoak eta pa-saizokoak bakarrik. Zain zahar eta iraunkorretan errota dago, izkutukoetan eta agirikoeetan. Erakundeetatik datorren arazoa bada, gizon ospetsu askok aitortzen duten bezala, erakunde hoiek zuzentzen jo beharko da. Aldaketa sakonak eskatzen ditu egiazko erantzun batek.

Arao larrien zerrenda bat ere eskaintzen digu "agiri" horrek. Lan gabeziaren eta lan eskasiaren arriskua salatzen digu, Europa aldean diren langileak itzuli beharrean aurki daitezke. Beste zenbait "ordu-sartzeak" uko egin beharrean. Eta jakina diru-iturri horrekin kontatuaz bizi da asko.

Egoera hau lehenaz gainera desberdintasunak gehitzeko eta aberatsak aberatsago eta behartsuak behartsuago bilakatzeko aukera-maitekera dugu. Agintea bera ere esku banaka batzuetan biltu da. Hoinen erabakialak bete beste biderik ez dute gehienek.

Ez da zertan harritu, beraz, lanegietako horroak eta gatazkak. Ugaltzen ari dira lan-mundu horretako sesioak eta gatazkak. Langileak, berriz, ez dute beren hantziak zuzen dituzten lege-molde egokirik. Besterik gabe lege kanpoko eta izkutuko babesera biltzera behartzen dira. Erantzun gogoraren bidez eskabiderik zuzenak eta bidezkoenak ere perleak jota geratzen dira.

Aldaketa sakonak egin behar dira. Ez daitezke egin, ordea, horretan lan egin nahi duen guztiari parte hartzeko egiazko eta baliozko bide zahar eta askerik eskaintzen ez zaion bitartean. Hone-tarako askatasunaren arriskua jokatzen jakin behar da. Agintean dauden egitarauak eztabaidatzeko eta alderantzizkoak agertzeko aukera behar da.

Baina hau guztia ezinezkoa da gauzak zuzartetik jakiteko biderik ez baldin badago. Argiak ez digu elgari kalterik egiten. Eta elgariaren gaiterak eralki behar da gizarte bizitzan. Zakerria eta ustelkeria dakek isil-gai gehiegia.

Ekonomiazko egiazko hazkundeak izpiritu alderdik zaindu eta landu behar ditu. Kontsumo gizarte hau ez da aurrerapeneren exau-garri bakarrik, diru-gosten tranpa ere bada. Kultura ere ondorio txarrak ditu ekonomia-molde honek. Ez da arazoia zorroztzen duen kulturarik eman nahi. Zailtasunak jartzen zaizkio, giza-tasun gehiagoko giza-erak, zozakeen irakaskintza eta kulturari.

Hor daude gotzai hoiek salatzen dituzten arazo hoiek eta gehiagore ere. Zuloa ikustea ez da aski. Zuloak bete eta koska berdin egin behar dira.

Nola?

Bakotzak baditu bere maiuak eta aburuak.

DISTIRAK

Dubcek kasua dela eta

KARLOS SANTAMARIA

Inork ez du ahaztu 1968. urteko Pragako Udaberria.

Garai hartan, Alexander Dubcek bide berri honen norabidea azaldu zuen. «Sozialismoak»-zioen bere txosten famatuak—humanismo berri eta modernu bat sortu behar du, gizonen etorkizunari dagokion bezala, teknikaren aldetik oso handituak diren beste sistematik erditsi ez dutena, eta lortu ezin ahaliko dutena. Humanismo berri horrek giza-haz eta ugai eratzeko kondiziozko onenak ezarriko ditu».

Ikusten denez, giza-haz, pertsona hartzen zuten Dubcek bere politikaren helburutzat, eta, alde hone-tatik, pertsonalista edo pertsona-zale bezala agertzen zela esan daiteke, nahiz eta sozialismoa eta per-sonalismoa direlaikoei elkerkontra-koak izan, itxuraz behintzat. Hori zela eta, integratze berehala salatu zuten desbaleizaleak.

Guztiok dakigu onaitu hura no-la bukatu zen, sobietiko armadak Txekoslovakia Estadua desegin zutenen.

Orduko Dubcek enbaleak oso garaiaren handia lortu zuten eta hu-manismo berri erabat baztertu. Dubcek berak kargu guztiak galdu zituen. Ez zen giltzapetua edo hila izan, ordea, honelako kasuetan kristauren artean gertatu chi den bezala. Turkiar mandatarri nagusi bezala ez biltzuzen joan nahi izan, enplegatu apal baten gisa geratu zen bere herrian bertan.

Hala eta guztiz ere, humanismo berriaren ametsa ez zen urtu eta Dubcek itzala ez zen guztiz deus-tatu.

Urteak igaro dira. Gauzak arras aldatuak dira. URSSen politika na-hiko gaitik behera ari da, drudite-nez, sozialismoaren sailaren bertan markide handi bat ateratzen baita. Jakina alegia. Bestalde zenbait he-raldiki harroka bihurtu omen zela, gero eta gehiago gainera.

URSSen berruaren ere intelektual oposizio bat ageri omen da. Ideo-logiaren aldetik egoera oso naha-sirik dagoela dirudi, teknokrazia huts batetan bizi izaten jarraitze-rik ez dagoenez gero.

Honelako egoeran, politika berri bat egin behar duite sobietikoek, nahi eta ez, Txekoslovakian. Herri honen gauzak ez doazela oso on-gi, ekonomia-er aldetik batez ere, eta Husaketo pote egin duela as-koak dio.

Zergatik ezingo likote Dubcek berri ere agintora del egin? Orain ezina badirudi ere, bizpahiru urte barru biltzeko hori gertatzea. Bai-na gertatzen hau ez da berez ete-rriko, sobietikoek berek ekarriko dute. Lehengo artikulatu batetan, ho-ni «posibilismoa» deitzen genion.

Iragarpen hau nondik ateratu du-gu? Albeste berri batzuek diotenez, Mosku Dubcekik adiskidatzen ha-si bide da; lehen urratsen bat egin omen du, behintzat. Berak zioen bezain gaitzot ez zela Dubcek ja-kin erazi diote Husak sobietikoek. Bere aldetik, Dubcek jostu bat egin du, URSSen barkazioa bila-tzu. Eskutit bat biduali dio Smers-kovski zenaren alarguntzari, sobie-tikoen erasoak gaitzetsi beharrez-koa dela adieraziz, baina ez zire-la haik errudunak, Txekoslovakiatik zuzenez beste informatuak izan zi-relako gertatu zela gertatu zena balizki. Guzi honek ederki zuzitzen ditu sobietikoak eta arras gaitzes-ten Husaken jokoa.

Posibilismo edo ahalzaletasun hau, ordea, ez da marxismoa. Dog-matikatik urruti omen dabil. URSS-en, mundu osoan bezala, egungo ordua posibilismoaren ordua da. Teoriak alde batera utz eta egi-nahalak egin, aurrera ateratzeko. Hango integratze protesta jotzen badute ere aperturista izan behar, nahi eta ez, sobieten politika.

Urrats handi baten bezperan

Datorren astean (Urriaren 12-13) bilduko dira Parisera Frantziako so-zialistak: Mitterrand-aren alderdi na-gusia (PS), Chapuis-aren alderdia (PSU), R. Buron-aren taldea, CFDT sindikatu buruzagi mordo bat, eta abar. «Assises du Socialisme» de-ritzen biltzari nagusi horren helbu-rua ezaguna da: marxista-leninista ez diren frantses ezgertat guztien batasuna lortzea.

Gertakari honek garrantzi gaitza izan dezake Frantziaren Kontin-dan: aurtengo Maiatzean, ezker ba-tuaren aintzindari gisa presentatu zelarik, oso gutxi faltatu zitzaion Mitterrand-i garaitzale gertatzeko. Eta ia seguratzat jo daitezke Frant-zian ondoko urteotan ezkerarrak nagusitzea. «Stalinismo»-aren ondo-rioz marxista-leninistak politikako «ghetto» hertsian luzaratu egon ondoren, Alenderen birtatez aurre-nik, eta Mitterrand-aren inguruan on-doko hila-beteten, sozialista berri-tuek kapitalismoaren kontra komu-nistekin elkarturik jokatuz aurrera jotzea erabaki dute, eta klase-bata-suna erailitzeko («un large front de classe» alipatzen du PS-aren Agiri edo Txosten berriak).

EGOERA BERRI BATI BURUZ

Frantziako sozialistek, hitz ba-tez, gauzak aldatu egin direla us-tute. Eta Programa zehatz bat li-broki elkarrekin erabaki ondoren (hau da «Programme Commun de la Gauche» delakoa, komunis-tok, sozialistek eta ezker-er-radikalek onartua), Programa horre-tarako burukabidean barrena bat egin behar dela; nahiz eta, gaur arte, komunistak nagusitu diren erresumetan behin eta beriz el-karritzea eta aginte-zatiketa guz-tiak errotik erasutuak izan badira ere.

Gertakariak, horretara, garrantzi ezin handiagoko du. Funtsean 1936-ko «Borote Herriko» edo Frente Popular haren salaketa egin nahi da berritoki.

Eskundarrak, jakina, dardara-z daude; eta mehatxak eta erasoak ugalduz doaz: bai Mitterrand-en beraren kontra, bai ezker batua-ren defendatzaile agertzen diren guz-tien kontra ere. Antikomunismoa-ren leloak entzuten hasiak dira be-rritoki bazterretan; eta gauza naba-rrena da «stalinismo» deritzen au-tokratia dela gaur ere sozialismoa-ren eta ezker batua-ren aurka era-biltzen den eta erabili daitekeen ar-gudiorik sendoen.

PRESTAEERA-LANETAN ARI

Baina Pariseko Biltzar Nagusia oso inportantea izan daiteke mun-du guztiko sozialismoaren etorkizu-nari buruz. Hau garbi ageri da Frantziako prentsa-er oihartzune-tan.

«Le Monde»-k, esate baterako, beste artikuluo-mordo baten ondo-n sei artikuluo bereizien sail oso bat hasi du gaur (1974-X-4) «Assi-ses» delakoel buruz; eta, horrez gainera, Edmond Maire-ren Dekla-razio bat dakar.

Biltzar Nagusirako prestatu den Txostena («Pour le Socialisme» ize-nekoa) hedatzen eta ezagutzen ha-sia da. (Lortu nahi duenak bide hau balia dezake, besteak beste: «Le Poing et la Rose», n.º 31 - Organe du Parti Socialiste - 12, Cité Malesherbes - Paris, IX).

TXOSTENAREN IDEIA NAGUSIAK

Argi-eta-garbi aitortzen dute fran-tses sozialistek Txostenaren hitzau-rra gaurko sozialistek ez dutela inongo erudun proposatzerik; eta egin diren salaketek oro gaur-gaurkoz erreka jo dutela. Mutur batetik, diote, «gizona Erresuma ahal-guztidunaren jopu gertatu de-lako»; eta, beste muturretik, «ka-pitalista hazkunderaren akats eko-nomiko eta sozialaren aurkako hau-tabiderik proposatzen jakin ez de-lako». Eta honela jarraitzen: «Ez dago soluziorik salabiare berri bati buruzko ausardian balizki».

Bide ausart hori, jakina, autojes-tioa da. Burokraziaren kontra jo-katzeko, autojestioa erabili behar da maila guztietan: «L'autogestion est la clé de voûte d'un socialis-me démocratique»; alderdi baka-rren kontra jokatzeak, aniztasun edo «pluralismoa» behar da, baita sozialismoaren autogestioarekin re-pose sur le pluralisme. Il garantit la li-berté d'expression à tous, par-tisans ou adversaires du socialis-me»; gaitik beherako izendapenen kontra, beheitik gorako hautabidea behar da: buruzagiak behekoak au-keratuko ditu, ez burokraziaren aparatoak: «dans toutes les entre-prises qui constituent les pôles de domination économique devra avoir lieu l'élection des organismes d'administration et de gestion par les travailleurs concernés».

Ideologiaren mallan, berriz, dog-maerik ez. Txosten guztian ez da behin ere agertzen «marxis-mo» hitza edo Mao-ren izena. So-zialismo-bide hau laikoa da errot-iki. Urrun dago gure arteko mo-dako joera batzutatik. Pentsakera zabal berbera ageri da ekonomia-plangintzari dagoki-nez: «La planification démocrati-que, c'est-à-dire la détermination démocratique (par le débat et par le vote) des besoins considérés comme prioritaires est indissocia-ble de l'autogestion dont elle est la forme généralisée».

ETNI-ARAZOAZ

Orain dela hiru urte Mitterrand buruz buru ezagutzeko aukera izan genuen, artez joan zitzaion gu-re galdera bat irakurleak soma-dezakeen aldetik. Eta frantses sozia-listaren erantzuna hau izan zen: «Ongi dakizue: ni Nievre-ko depu-tatua naiz aspaldi honetan; eta es-kualde hartan ez dago etni-arazo-rik. Altor dut, beraz, problema ho-rron gorabeherak ez ditudala oso zehazki azalduz». Itzuri egin iz-tzaizun buruzagi ezaguna, beraz, eranturik eman gabe.

Arrastu horixe (edo hori bai-no gaiztoagorik ere ez gutxitan) jaso liteke asko eta askotan etni-arazoa beren haragian bizi ez du-ten sozialistengandik. Frantzia-n, halere, gero eta ukat-zen zailago bihurtzen ari da etni-arazoa (Breña, Alsazia, Korte-ga, eta abar). PSU-ak berak ere uztar gaitzak izan ditu Breñaiko bere arduradun batzuekin. Era a-ra-zo horretaz arduratu gabe segit-zerik ez dagoela ageri zaio.

Hori dela-eta, Pariseko Biltzarre-ko antolatut diren hamarko Gato-veko «Carrefour» horietako baten aztergia hauxe izango da: «Ré-gions. Collectivités locales. Amé-nagement du territoire. Droit à la différence». Desberdin izateko es-kubideaz, alegia, Jakina denez, Frantziako Sozialista Alderdiak, Komunistak bezala, alheruz eta errezeloz begiratu izan ditu etni-arazoiak eta desberdintasun-nahiak. Etsi egin bide du ordea; eta, hain zuzen ere, Sozialista Alderdiak era-tza, beste biltzura bat izan da gaur, Urriaren 4-an beraz, horri buruz, R. Laffont, Y. Person, eta beste, biltzarkide zirelarik.

«Pour le socialisme» Txostenean, bestealde, hau irakur daiteke hitz-hitz: «Le socialisme autogestion-naire reconnu à toutes les mino-rités le droit à la différence et à l'affirmation de leur identité co-lective».

Hitz hutsak ote? Baliteke. On-da, halere, arazo hauen garrantzia-z ezkerarrak jabetzen hasia.

LARREROSO



EROSITAKO PREZIOAN

Lehen agertzen ez zen berri as-ko azaltzen da gaurrekin egunkari batzuetan. Batzuk indultzentzi be-reziak dituztela dirudi horretarako. Zenbaitek gaitzi ibili behar izaten du hoinen laurdena esanda ere.

Zaharturik geratu daitezke hona-ko albiste hauek gure aldzikaria irakurlearen eskutera iritzi baino le-hen. Halere ezin isilari gure da-itezke eskual aldzikarietan, erdal al-dzikari eta egunkarietan, alipatzen diren berri hauek.

Honela dio Jose Onetok Iralla-ren 5eko «Diario Vasco»-n: «Orain dela aste gutxi Zaragozako preson-degian dauden politikoei hasi zu-ten gose-oporketa berehalaxe za-baldu zen Euskal Herria eta Ma-drillaino Iritzi da. Hemengo hogei espetxeratuak ez dute gaur ezer jan nahi izan».

«Zaragozan hamar daude gose greban (hoietatik hiru eritigiera era-man dituzte): Donostian hogei; Ba-saurin, hamalau, ruinean, zazpi; Madrillean, hogeiaren bat».

Zergatik?

Irakur dezagun Irallaren 3ko «In-formaciones»-ek diotena:

«Hamalga egin dituzte ezer ja-be Zaragozako presondegian ba-rua egiten ari diren 27 politikok. Bizitoki kezkatzen gaitu hoinen o-sa-sunak. Zuzendari eta barruko arau-di aldatzeko, eta politikok eta bes-teak elkarrekin bizi beharrek, sor-tu du ondoez hori».

«Orduantxe askatuak izan ziren Agustín Gisasola eta Jesus Etxe-barria, berritoki espetxearen atarian atxilu zituzteko», hasi ziren Ba-sauriako barau egiten, dirudienez».

«Martutenekoak, berriz, Urriaren 30ean hasi ziren. Berioek esan du-tenez arazoak hauek dituzte: Zuzen-dari berriak gogorago hartu ditu, etxekoak ikusteko egunak gutxitu dikie eta zainzailak ugaltu aldi be-rran. Inorekin harremanik ezin izan zezakeen bekaradaren eduki dute hogei egunez Bizente Gurrut-xaga. 17 espetxeratu eraman di-tuzte «Carabanchel»-a aurrez ezer adierazi gabe».

Jose Onetok Irallaren 4eko «Dia-rio Vasco»-n, Arruabarrenaren ai-torpen hau dekar: «Anbulantzi ba-tan Madrilira nideramatera eta bi-dean kordoa gaildu nola orolitzen naiz. Nekien guztia aitortzen nuen paper bat ikusi nuen betetrik, es-natu nintzenean».

«Ikusten denez korderik gabe ze-golarik eginko aitortzen horri es-kerak erori ziren Madrillean Ge-to-vea Forest eta beste zortzi».

Hauek dira, laburturik, egunka-rietan bildu ditugun berriak. Guk ez dugu albiste hoiek jakiteko bes-te biderik.

«Erositako prezioan saltzen ditu-gu», beraz.

IRASTORTZA

EGUN

EGUNGOA

ETORKIZUNA ARGIA

Gasteizen, betaurreko-saltzai-le (edo optiko) gazte batek den-da berri bat zabaltu du: kan-poan idazburu guztiak euskara hutez dira eta barrenean eus-kara da denda-zainen mintzai-ra.

Bejoandeizula! Ongi ikusten laguntzen duzun horri gauzak aratzen eta garbi ageri zaizkizu: erdaluntze latz gogoraren aurka euskalduntze gartsu neka-gaitza da bide bakarra.

Daniel Ibargotiti

IX liburu eta disko azoka Orain dela zenbait aste aurretik, domusandutan aletia, IX Liburu eta Disko Azoka eratuko da Durangon, Gerediaga Elkartearen ardura eta zuzendaritzapean.

Hiru egunotan, goiz eta arratsalde, azoka irekirik egongo da Uribarriko Andra Mari elizaren arkupean, eta batz bestea, hogeiren bat argitaldarak agertaraziko ditu norik bere liburu eta kultur emaitzak.

Urtero bezalaxe, folklore saio eta erakusaldiak prestatuko dira azokaren inguruan, eta azoka lekutik kanpora ere izango dira liburuarekin zer ikusirik duten ekintza bereiziren batzuk.

Esan beharrik ere ez, azken urteotan bezalatsu, aurren ere zenbait sari emango zaiela literatur mailaz zein beste azokan barrena azaltzen diren libururik hoberenei.

Horrez gainera, aurtengo "Gerediaga" sari berezia kazetaritza motari eskainia izango da, Evaristo Bustintza "Kirikiño" mafiariarra zenaren oroitzapenetan.

Euskal alorrean Gerediaga Elkarteak urtean zehar prestatu ohi duen ekintzarik garrantzitsuenen martxan dugu, beraz, bederatziarren aldia, Juan Ignazio Alberdi lehendakaria mintzatu düt, eta azken ikuntak burutzen omen. Txartela ere, bozeto berri batez, inprimategian. Ea datorren astean agertzen ahal dugun.

mendaro txirristaka "Mendaro Txirristaka" bertsolaria jaio zen ehun urte beteaz dela eta, Mendaroko bertako "Gurutze" elkarteak bertso-paperean sariketa bat moldatu du harpen omenetan, honako araudi honen arabera:

1.—Bertso-paper edo bertso-sailek, 1973 edo 1974 urtean argitara emanak izan beharko dute, edozein egunkari, astekari, kazeta edo bertso paperetan argitara emanak, hain zuzen.

2.—Bertso-paper edo bertso sailek, herri literatur mailako eta eskolakoak izan beharko dute.

3.—Egileak lan bakoitzeko hiru ale bidali beharko ditu honako zuzenbide honetara: S. C. R. Gurutzpe. "Mendaro Txirristaka" Saria. Mendaro (Gipuzkoa).

4.—Epai-mahaia Euskaltzaindiakoak izango dira.

ZENBAT GARA

5.—Lehen saria 8.000,— pta. izango da. Bigarrena, 5.000,— eta hirugarrena 3.000,— Horrez gainera, 3.000,— ptako, beste sari berezi bat, "Mendaro Txirristaka" zenari buruz bertso sailek onena aurkeztzen duenari eskainiko zaio.

6.—Bertso-paper edo bertso sailek, 1974-ko azaroaren 15era arte bidali daitezke.

7.—Sariak, Mendaroko "Gurutze" elkartearen, abenduaren 15ean banatuko dira.

Bertso-paper sariketa honez gainera, beste zenbait saio eta ospakizun ere eratzeotan ari dira. Mendaroen, Gabonak aurretik eratu ere. Gutziz, garai onez berri zehatzik eman ahal izango dugu.

bizkaiko II baserri azoka Irakurleak dakikenez, irailaren 28tik urriaren 6ra arteko zortzi egunen barruan eratua izan da Bilbon Bizkaiko II Baserri Azoka delakoa, Aurrezki Kutxa Bizkaitarraren ardura eta diru-laguntzapean.

Batz bestea hirurehun bat erakuslek hartu du parte, Bizkaiko, baserriari dagokion hainbat arlo, gai eta amaitz desberdin erakutsiz.

Hontaz eta hartaz makinatxo bat sariketa eratu da, hala nola zenbait abere motaz, lur-emaitzez, txerrikiz, baserri-gaztiz, txakolin, sagardo eta beste.

Horrez gainera, zenbait merkatalgo lantegiren erakusketak ere muntatua izan da, baserriari dagokion edozein bat makina, traktor eta tresneriari atxikiz.

Era berean, azoka honen inguruan, Espainiako I Frisona Arrazako Ganaduen Sariketa eratu da, bizkaitarrek ezezik beste zenbait probintziatarokoe ere parte hartu dutelarik.

Bizkaiko baserrietako lur emaitzari buruz, erakusketa urri samarra izan da, aurreko lehen azokarekin baino urriago, behintzat. Aurtengoan nolabaiteko berezuntza egin da, nonbait, maila hobea batez erakusleak gutituz.

Zortzi egunon barruan, egunero eratu izan da salerosen bat edo beste, filma, hitzaldi, erakusketa berezi etab. Bai eta euskal folklore, joku eta kirolen agerraldiak ere, "txingaz-erute" (txingak eramatea, alegia), doinu zahar, idi-proba, harrijasotzaile, haizkolari, sokatira, oilar-joku, trikitilari, kanta berri eta beste.

Esku-langintzak ere izan du bere toki aski zabala: liru-lanak, zatogintza, abarkak, abarketak, kutxak, txistugileak, otarreak, pelotak, utzarriak, albokak etab. etab.

Azokako ikusle soilen artean esku-langintzari buruzko sari honek izen du behar bada arrakastarik gehien, hainbat tresnaren erakusketa bixiaz gainera, langile trebekek norik bere alorrean ihardun bait dira azokak iraun duen artean.

Azokari darioen mugimendu eta bizitasunaren artean, naharmen esku-langintza sail horren museo kutsua. Eus-kaldunoi ez zaigu museorik gustatzen. Ezta inori ere... berea denean.

elkartu beharrean Giro eta egoera politizatu batetan ari gara azken

bolada honetan, eta baidin egunkariet jaramon apurren bat zor badiegu, aldaketa frankoren atarian gauda, zorionez.

Egia nahiz gezur, itxaropen zein ames-huts, zenbait talde eta alderdi biltzen ari zaigu, posizio-hartze delako baten gisa. Hoiakoa zenbaitetik dienez, aldaketaren bat nahi luketen talde guztiek behar lukete bilda, eta batasun berri horren oinarriak agertarazi dituzte.

Demokrazia eta askatasunezko programa dakarte: irizki askatasuna, kazeta askatasuna, politik-espetxeratu gütien askatasuna, alderdi askatasuna etab. etab. Herri askatasuna alpatzen ordea, autodeterminazioa alegia, inork urte baino zuhurrago mintzo dira. Hori "gero" erabaki beharko omen... Horra zenbaiten aurrerakoitasuna zein laster bukatzen den, demokraziaren izenean bukatu ere.

Aldaketa sumatzen da, bai, zenbait girotan, eta nazioa mailan sozialismoak zer erakar dezaken zenbaitetik zantuztan jartzen badu ere, dudarik ez, ordea, komunismoak beste zentralismo huts eta absoluto bat baino ez dezakeela ekar.

Giro nahasi honetan aukeran eta irakurgarri dator-kigu Jakin-en azken liburua, Kolonizatuaren ezagugarria. Hona Albert Memmi egilearen zenbait hitz: Ez da aski erreparatua izan, ene ustez, arrazakeriaz eman dudana azalpen berria; alegia, talde batek beste talde baten gainean daukan nagusigo-harremena gisa; ezta europar ezkeraren frakasuz (eta komunismen batez ere sail honetan) eskaini dudana azterketa: alegia, koloni-herrietan nazionalismoa muina behin eta berriz gutxitze delak.


Eta 52. orrialdean jarraitzen du: Fraitziako komunista alderdiak ere bere kontura hartu bere burua, eta frantses ikurrina eta "Marseillaise" bera gorapatu ditu berriro... Kapitalista arriskuaren kontra, sozialista ideologiaren izenean bururatu egin beharrean, komunista alderdiek, eta ezkerrearen parte handi batek, nazio baten kontra beste nazio bat paratu nahiago izan dute...

Eta geroxeago. Ahalik eta gutxienetan alpatzen dute puntu hau; ez dira ausartu ohi gaitzesten, ez zuzenesten; ez dakite nola bil dezaketen, eta bilda nahi ote duten ere; eta kondairaren ulertuntzan ez dakite balere nola egin. Hitz batez esateko: gauro ezkerre arrotz da-bil albertzetasunaren altzinean.

Hitz gutzitan gainetik, eta sail hau aukerakoen ez bada ere (ezta egilea ere, apika), zera esan nahi nuke, euskal estrategia baten beharrean gaudela, inoiz baino premia gorriago dugula, eta, esan beharrik er ez, tiki-mikiak utzi eta elkartzeko ordua dela. Etorizunak ez dirudi txantxetarako.



Murclagako gaztagintzan



Baserriko emaitzak



Azoka ez da gero denontzat jai egun!

azken berriak Abenduaren 6tik 22ra arteko bi aste luzeraren barruan Bergarako I Euskal Kultur Hamabostaldia eratzeko da. Eratu ere, "hemezortzaldikoa" eratzeko, itxura denez.

Programa ezer guti erabakirik dago oraindik, baina badakigu jakin denetarik saloak eratzeko direla, hala hitzaldiak nola kanta eta bertsolari jaialdiak. Baita doinu zahar, arte eta bestelako agerraldiak ere.

Donostiako ARGIA taldeak ere parte hartuko ote duen zurrumurrua bada Goria barrenean.

● Gabon aurretik ere, eratzeko dira Azpeitian II Urolaldeko Salakerak. Zenbait gai, aukera eta proposamendu bada dagoeneko, baina erabaki ezinik, nonbait.

● Beste horrenbeste Lizardiren omen eta oroitzapenetan Zaratzen eratzeko den kultur egitaraua. Neska-mutil talde bat gototik ari da lanean, abenduaren erdi inguruan zerbait egin asmoz.

Lizardiren omenezko saio hauk udaberrian eratzeko ziren lehen batez, eta sasoi haretan moldatu zen aurre-programatik badakigu, bai, zaratzarrek lan serioetan dihardutela.

● Eta, omenaldi girotan, oraindik denbora asko dugu arren, aipagarri deritzagu azpeitiarrek Carmelo Etxegaray zenari datorren urtean eskaini nahi dioten omenaldiari.

Datorren urtean, hain zuzen, berrogeita hamar eta utz betetzen dira Etxegaray kondairagile eta azterlari ospetsua hil zela, eta horra sortzerriak eskaini nahi dioten omenaldiari.

Ez da, bestalde, Azpeitia herriak eskaintzen dion lehen izango, 1928 urtean ere egun bat eratu bait zen haren oroitzapenetan.

● Beste horrenbeste esan dezakegu Jean Barbier sortu zeneko chun urteurrena datorren urtean ospatzen delarik.

Donibane Garazin nahi lukete zerbait egin, "Orixe"ren ustetan euskal idazle onenetarikoa bat izan zen garatzar horren omenetan.

Portugal kolonizatzailea faxismoaren eta demokraziaren artean

Spinolaren kartutxoak erre dira

Begi asko dago Portugalgi begira. Aginte larderikoitik askasunezko agintera igaro nahi du. Aginte-moldez berritu nahi du. Baina horretarako ekonomi-moldez ere aldatu behar dauka.

Ez da, ordea, hor bukatzen Portugalek gaurregun daukan kinka guztia. Kolonizatzaile aitzeari uko egin behar dio.

Zulo eta koska askotan behaztopa daiteke. Burutuko ote du hartu duen lana?

SPINOLA - Palma Carlosen gobernu

Spinolak, ekintza politikoa eta militarrean, sekula, ez du utzi izan batarazteke bere eskuindar jokabidea. Apirilaren 25an, Harmadaren Mugimendu gaztearekin elkartu zen. Bazirudien, golpea burutu zuten militar gazte haien buru Spinola zela: aurki ikusi zen ordea beronen estratejia. Spinolak, ezker itxurak harturik, «caetanismoan» lokaturik zegoen eskua berbitzu eta organizatu nahi zuen. Europako burjesia liberalaren arauz, erdiko partidu politikoa indartsu bat eraiki; gero haren eskutan utziko zukeen lortu berria zuen boterea. Ekintza honetarako, Spinolak bere agintaritzari oso epe laburra ezarri zion: lehenbiziko egun beretik hasi zen helburu hura mamitzen. Harako partidu-hipotetikoaren buruzagia ere finaturik zedukan: Sa Carneiro, bigarren gobernualdian ministeritza galdutako eskuindarra.

Spinolak, hastapenetako urratsak ongi eman zituen: M.F.A. (1) «koratu eta J.S.N.eko (3) militarrekin osatu zuen gobernu. Eskuindarrek, nagusiki menperatzen zuten lehen gobernu hura: Adelino de Palma Carlos, Sa Carneiro, Mario Firmino eta abarrek, Mario Soares sozialistari eta Aveilino Gonzales komunistari, biori, gobernuko karterarik zaienak eta traketsenak emanaz. Soaresek deskolonizatuaren egikizun beltza hartu zuen besapean, hots Portugalentz atzerabiderik gabeko egikizuna; harako aberri-kolonizatuak asatasun osoa eman ezik. Gonzalesek, lanaren ministeriagintza hartu zuen. Garairik bihurtuaren honak ere, langilegoko, sekula baino lanuete eta soldateskerik sendoenak aurketzen ziharduen sasoi bearean. Spinolak, horretara, P.S. eta P.C. biok, beren ordezkariak irtenbiderik gabeko aldea zuloan ererik, gobernuki zilipurdikatu zituzkeen. Bestetik, Spinola-Palmak, kapital-finantzalaria lasaitu nahi zuten. Lanuete gogor haiek, herri-agerkuntza sendoa, batez ere Maiztaren aurrenekoa, zenbait ezkeriarren mitin eta aldizkariak etab, ez zitzaizkien batere gogozko. Partidu politikoa berak ere, sekula ez beginez ikusialak eta doi doi baimendu-ak. Gauzak hain murriztuz ikusirik, Spinolak bigarren golpea ematea pentsatu zuen. Proposamenak: Carlos Palmari (Lehen Ministroari) aginte eta ahalmen gehiago eman; Batzar-Konstituziogilerako hauteskundeak atzeratu; Lehendakaria aukera zezan herri-bozketak aurreratu. Asmo guztiok burutu izan baziren, Portugalgek, eskui aldera arras egingo zukeen. Ziurturen guztiz, kazetaritzaaren baheketak, Alderdi politikoen suntsiketak, lanueteen debekuak, eta batzarteko eskubideak galdurik, ezagutuko genituzkeen. Bigarren golpea honak gauzak arras aldatu zituen, Palmaren ordeza Vasco Gonzales aurrerakoa burutu zuen gobernuan eta deskolonizatuak beste abiadura bat hartu zuen. Abiadura berri honen lekukotasun sendoa, Uztailaren 27an, Spinolak berak Deskolonizatuaren egintza mitina izaki. Spinolak, ur-aparretan ibiltzeki utzi zion. Gobernu-buru Firmino Miguel ipintzerik ez zuen lortu. Bestalde, bere liburu arrakastatsun aberri-kolonizatuari buruzko proposamenak, pikutara joan dira. Ginean eta Mozambiken, Angolari bi urtetako epea eman zion, deskolonizatu, independentzia bizi bihurtzen dihardu. Bigarren gobernu aldiari, Spinola ardi galdutako bezalatsun arkitzen zen; baino artean bazeukan beste bide bat. Azken kartutxo indartsu bat gelditzen zitzaion eta oso maltzur erretzeko deliberoak hartu zituen. Spinolak, bere sostegitzaileetaz «gehiengo isilari» deitu zion! Hara non Nixonen teoria Spinolaz mintzito!

IRAILAREN 28ko GOLPEA

Irailaren 10ean Angolaren Independentzia ezagutuaz, Spinolak, mitin ozen bat egin zuen. Tartean eskuindarrei deihadar garratz bat egin zuten, esna zitezen eskatzen zien Spinolak eta hartaraz gero, Irailaren 28an agerikunde nagusi batetan bil. Agerikuntza hau aitzaki harturik, eskuindarrek Irailaren 28an «GOLPE» bat obratu nahi zuten. Asteotan egin diren ikerketek hama multzo izugarria bat arkitu dute. Istilu honetan parterik handiena gobernuko zenbait eskuindarrek izan dute, Spinolagan babesturik. Ezkertiarrek tinko erantzun diote orangoan, Lisboarako biderik nagusienak barrikadaz hesiaz eta azpian maltzur hura eguneroko salatuz. Ezkertiarrek tinko egon bakarrik ez; orango honetan erre ere ibili dira. Eta ibili beharko dute aurrerantzean ere! Spinolak, bere azken mitinean ezkeriarren demokrazia, anarkia latsagarritzak madarikatu eta orango gobernu ia salazismoaren pareko jo du. Honela amaitu da Portugal gazteberritu honen lehenaldia, «spinolismoa» alegia. Spinolak bere egindakia bete du.

Costa Gomez Lehendakari berriak Vasco Gonzales lehengo gobernu-buru bera izendatu zuen berriro. Egungo gobernu ezkeriarren esku gelditzen da. Vasco Gonzalesek biziri gaitzetsi du Spinolak salatu zuen «anarkia», internazional lehen hildorai eutsiko dietela esanaz. Aste honetan 103 ofizial bahiturik gelditu dira, beste zenbait eskuindarrek Espainia ihes egin du. Zenbait finantziaren ondasunak gobernuaren gertapean gelditu dira. Kapital-finantziariaren ihesketak ere salatu dituzte. 18.000 miloi eskudutxugia omen dago. Herria gobernu berriaren alde agertu da. Uriaren seirako, gobernuak «gogozko lanegun» bat izendatu du. Lerro hauk idazten ari garan garaiari, ez dakigu nola izendatu duen egun honak. Gobernu berri honak; zenbait erabaki eta neurri, gogor eta bizkor hartu beharko ditu. Portugal, Apirilaren 25ean bezalatsu, berriro demokraziaruntz abiatu da; baina faxismoaren mehatxupean.

- (1) Movimento de Fuerzas Armadas.
(3) Junta de Salvación Nacional.

IKUSKIZUN

Portugal, Txile berri bat ahal da? Ez gurek, baiez alortu nahi. Zergatik? Ba... agien, denok barne muniten sarturik daukagularia. Alenderen amaiera guztiagularia eta gutarteko inork, harako gertakari gogorrik Portugalgo herri-jatorriari opa ez diogulako.

Portugalek eta Alenderen Txilek badute ezberdintasunik aski, azterketa nagusirik egin gabe, oso gaingiroki begiraturik, bata, Portugal alegia, Europa burjes-demokratikaren ingurumarian finkaturik dago; Gobernu larderikoik, ia deus, ez dagoen politika giroan eta demokrazia liberalaren arauak betetzen dituzten parlamentetan. Txile, aldiz, Hego Amerika yankitar, garbiago esanik, C.I.A. izugarriaren menpean, gobernu faxistak nagusiki zuten testuinguruan bizitu zuen. Bestalde, Alenderen problema nagusiak ez ziren deskoloniakuntzak; oso bestetarikoa bezik. Costa Gomezen Portugal eta Alenderen Txile oso berdinak diren ez legoke esaterik beraz. Ordea, elkarrekin zerikusirik badutela esatea ere, ene ustetan, ez litzaiteke oso burugabea izango. Biok, ekonomian arloan, oligarkia eta uterrikotik kapital inbestipenen kontrolpean daude. Langilegoaren bizibidea, oso txarra biota.

Portugalek, Europar guztien dagoen lan eskurik merkeena arkitzen da, arazo honen erakapenak kapital-inbestipenak franko bizkortu ditu. Alenderen Txile eta egungo Portugal, gizaingurua berri bat baten bil doaz, demokrazi liberalaren zenbait ustelkeria izan izakutuz. Azkenik, biok ziki beher, demokraziaren eta faxismoaren arteko kinka larria. Honetaz, Alender gaitzalek atera zen. Portugalen, alderantziz, orainarteko eskuindarren golpeak deuseztatu ahal izan dira. Eta hura bertan, Portugalen eta Txileren kideotasunik interesgarriena: berrogeita zortzi urtetako salazariemotetik burua altxatu duen Portugal, Alenderen Txileren antzo, munduko demokrazia guztien erakapen bihurturik!

Iragan mendeen, pentsalari sekion batek honela idazten zuen: «lehengo a zaharra suntsitu ondok jaiotzen den gizarte berriak —ekonomian, moralasunean, pentsamoldean etab— hark utzirikoz ezezaguriak, honak berekin daramatza».

Apirilaren 25an, Portugal iraultzarik egin gabe, gizarte astun, atzerakoi eta gogorkeiaz betetako sozietae betetik askatu zen. Gizaalderdi bat inguruen salazariemotek ezarri dion, izurritza garbitzen; latz kostatuko zala Portugal gazteberritari. Eta honetarako, borondatearik hoberenez eginkere ere, ez bide du aski. «Salazar-Zubia» letraz aldaturik «Apirilaren 25eko Zubia» ipintzeaz. Gobernamolde politikoa bat aldatzen denean, ondokiotatzen gaine-oluzko zenbait aldekata, bizkor burutu nahi izaten du. Espainiako II Errepublikaren ere «Salazar-Zubien» gisako aldekata upari arki dezakego. Alegia, Salazar/Caetanoren pertsonaltatek ez baino hainel susten zien klasearen egoerari begiak tinkatu behar dizkiogu. Gaineiturrari dagozkieken aldekatakin arinak eta bakunak diren ez nuke esanahi. Are gehiago Portugalgi begoegoko, PIDE-DGSren birrinketa gogo-muniten izanik.

Portugalgo ekonomiarren ardatza, multinazional enpreariaren eta bertako hamabi familia aberatsen esku daturia. Familioi, banketei, finantziabide eta industriari indartsuenak kokaturik daude. Berauek osatzen dute Portugalgo oligarkia nagusia.

Eskuindar/caetanozale hau demokrazia jokoa baten chitxete dago. Salazarren diktadurapean herria

Anatsan

GINEA - BISSAU

Herri menperatu guztien askariogintzan buruzagi bat edo beste gaitzen da. Gineako aitzindari trebea, Amílcar Cabral, Bafatako herri txikian sorturiko injinadore iraultzailea izan da. Cabril, iragan urteko Urriarilaren 20an, PIDE-ri saldururik zegoen zegoen Kamilek eho zuen. Cabral anaiek, Monterok eta beste intelektual zenbaitek —ia denak burjes-tipi eta ikasleak, ziren, Lisboako ikastetxetan ikasiak—, ginearren abertzale mugimenduari erreformismoa kutsu guztia kendurik, egitazko askatasun osoa heldu ahal izateko abiadura ezarri zieten.

Amílcar Cabralek, 1956an P.A.I.G.C. (1) sortu ondok, abertzale guztia elkarre hartara biltzea asmatu zuen. Ondotik PAIGC izandu da ginearren herri mugimendu nagusia, hemezortzi urteotan Portugalgo harmadari borroka izaki egink askatasuna lortu duen erakundea.

Amílcar Cabral, PIDEk hiltzuenen, PAIGC dardar egin zuen. Halabaina, herriari itsatsirik mugimendu abertzaleak, buruzagi bakar batetik zintzilikia ez dira egoten. Nahiz eta berarek, Cabral bezalako iraultzaile trebeak izaki, Zortzi hilabete iragan orduko, Irailaren 25ean PAIGC-k Medina de Boen egin zuen Batzarrean, Gineako lehen Errepublikak libre bat sortu zuten. Caetanoren gobernu faxistak, errealtat hura egiazki ezagutu ordez; PAIGC-ren burugabe propagandatzat hartu zuen. PAIGC-k, orduko, herriaren laurik hiru zati bere gertapean zituen. Eta Ginea gazteberrituak, O.U.A.-k (2) eta beste 85 aberrik atek zabaltu zituzten, Errepublikak libre bat baillitza. Beraz Portugalek ez du Ginea-Bissau deskolonizatu; aitzitik Ginea, bere kabuz eta indarrez Portugalgo atzaparpetik askatu da. Portugalek, Ginearen deskolonizazioa, ezinbestez, ezagutu besterik ez du egin.

GINEA-BISSAUEN TESTOINGURUA

Ginea-Bissau lurralde ez da oso zabala. 36.125 km. Euskal-Herria baino haundixeagoa. Bizilagunez, Cabo Verde eta guzti 800.000 lagun inguru. Hamabosgarren mendeen, Portugalgo itas-gizonak jopuen salerosketarako lekutu zuten. Jopuen merkatua gaitzen zena, Lisboak bere atzaparpean lotu zuen. Gineak, Angola eta Mozambikek baino anitz aberastasun guztia daukanen gero, Portugalgo kolonizazioa, hauek bezain bortitzi ez du izan. Lisboako administrazioak bazeukan aski Angola eta Mozambikek, Gineak erakiki zuzena beriz aski ahal eta beranta zen kolonizazioa sendo burutzeko. Gineak, horretara, herri kolonizatu bat izan arren ere, bere etnien eta kulturaren suntsiketaz gogorrik ez du ezagutu. Ez kolonek eta ez mixeliariek, hemen ez dute herria bere buruz beste kulturadun bihurtu.

Hauzoko bi aberrik, Senegal eta Ginea-Konakrik biziki lagundu diote Gineari. Batez ere Sekú Turé-ren gobernu aurrerakolak, non bere matak atek erosotasun guztiaz zabaltzen bait zizkion; bertako hiriburu PAIGC-ri babesleku nagusia ematera. Halaber, ez dago gutxi-terik ere, Hirugarren Munduko herriengandik eta Erresuma sozietatetik hartu duen laguntza bikaina. ONU berak ere Ginearen askatasuna beginez ikusi izan du.

Nazio arteko ingurumaria arras egokia izan da Ginearentzat. Hone-taz, Ginea eredu dute: alegia, herri menperatu batek bere aska-zigintza orokarrerako, beste herriengandik behar izan ohi duen laguntza, oparo eskurazten asmatu duela.

Amílcar Cabralek, herri-ndar guztiak gorputzu eta gidaritzaz nagusi baten pean elkartu zituen. PAIGC sortu berrian, alderdi abertzale bat zen soilki. Baina, salazariemotaren xanpanka itxu eta hasiak har-madun mugimendu iraultzaile bihurtu zuten. Amílcar Cabral bere, honelaxe, garrazki mintzo: «Gure borroka, oinarri, politikoa da. Hama-boroka baten itxurak hartu baditu Portugalgo gobernuaren jakera faxistagatik izan da. Gure jokabide politikoa garbia da: Herria aski nahi dugu. Gure herriaren askariogintza honetarako alde edo moldez laguntzen gaituzten guztiak, gure anak izaki; Portugalgo imperial-moari laguntzen dioten guztiak gure etsai dira. Independentzia politikoa bat, internazionalki lortu nahi dugu. Bakearen alde, lan egin nahi dugu. Herri menperatu guztien alde gaude eta gizarte osoaren aurrerapidea maite dugu».

LANBIDEA

Bere oinez lehenbiziko urratsak ematen hasten den hauztokoa bezala, Ginea-Bissauk ere emeki emeki abiatu beharko du. Hirugarren Munduko estatu gazteen antzera, burujabetasun politikoa lortu ondok aski biluzirik arkitzen da Ginea-Bissau ere. PIGC, azken urteotan irakas-kintza arloan gogoz arduratu da; baina oraindik % 80 gineatar, anal-fabeto ez-jakin dira. Merkatarik, alondoro eta beste enpleatu gutxi baten osatzen dute «burjesia-herrikoia» derizagukena. Petrolio eta meategi langintzarik, oraindik ez duenez gero proletario industrialik ere ez du. Kaltetako garralo lanetan eta artesanoan diharduen gutxi batzuk ezik. Langile batak ez nekazariak U.N.T.G. (3) sindikatoen babesturik daude. Sindikato honak ere klandestinitateko ilundetarik irutzen, ofizialtasun eta nazioindiko zentral nagusien laguntzak lortu ahal izan ditu.

ETORKIZUNA

Gineak, bere eremu zarpailduetan, itxaron du, petroleoa, urrea eta manganesoa arkitzea. Ikerketa guzti hauek egin ditza, atzerrikotz kapital-inbestipenak beharko ditu. Gineari ere, horretara, Hirugarren Munduko nazio gazteen patu bera letorikioke: Hots, bere azpiegituraren aberastasun guztia, imperialismo-internazionalaren zerbitzuan katepeza.

Cabo Verde (250.000 biztane) bere etorkizuna oraindik ez du hautatu. Herri-bozketak nagusi batetan erabaki beharko du, Portugalgi ala Gineari atxiki, edo-ia bere kabuz gidatu.

Ginea, ONU-ko Elkartearen sartu da, nazio-arteko politikaren elkar-tasuna eta laguntza eskuratzeko itxaron du, sobietarrak barrena direla-rik. Urriaren 31ean Portugalgo azken gudariak Ginea utziak dute. A-berri gazte txiki batek bere askatasun sagarutua lortu du. Egia da batere etorkizun samurrik ez duela; baina egia diru Amílcar Cabral iraultzailearen hitzak ere: «bizitza berri baten aitzinean gaude. Egusenti berri bat dugu etorkizun. Gure Herriaren borroka honak, gu afrikatar-rik, Gineako giza-emakumeok, munduko gizon guztien giza lege berdin-kan pautula irakatsi dugu».

- (1) P.A.I.G.C. (Partido Africano para la Independencia de Guinea y Cabo Verde).
(2) O.U.A. (Organización para la Unidad Africana).
(3) U.N.T.G. (Unión Nacional de los Trabajadores de Guinea).

erosotasun samurrez zapaltzen zuten. Europako kapitalismoak, zen-bait alditan, sindikatoek egiten di-zkioten soldata eskaiek eta lanuete-ko oparo ordaindu izan ditu. Portugalgo, Apirilaren 25 arte ez du lan-gilegoaren greba gogorrik ezagutu. Maiztaren aurrenekoak berak zea-ro beldurturik utzi zuen. Eskuindar/caetanozale hau, ez bide da heldu, egun oso modan dagoen «esku zi-bilizatua» izatera. Oraindik basati-keriaz beterik dagokeen frogantzak agertu ditu, iragan astean. Iraila-ren 28ko eskuindarrek prestatu zuten agerikunde golpe baten zantzu guztiak zeraizmatzen. Ondotik, bizkor egin du Spinolarenak. Bost hilabete igaro du spinolismoak, gu-dalburu honak, hiru alditan esku-alderako golpeak ematea delibera-tu zuen; hirurotan beste egun du.

IRUDIGINTZA ETA ANTZERKIA

Xabier Lefe

ANTZERKI - TALDEAK

INTXIXU

Azken bolara hontan, molde tradizionalagoetatik lanean ongi dabiltzan Urrietako «Egi Billa» bezelako taldeak ere kontuan hartuz, euskal teatroan halako berritu nahi bat eta gauzak ongi egin nahi bat nabaitzen da.

Euskal antzerkiaren berrituratzaila, itzultako obrekin, Jarrai taldea izan zen; baiña geroztik, geldidune baten ondoren, talde eta planteamoldetako berriak sortuz Joan dira, eta jendearen arreta merezi dute.

Talde hoietatik bat, Oiarzango Intxixu da. Intxixu taldea, Eugenio Arozenaren gidaritzapean, euskal teatroaren eraberritzea molde zahar batzuetatik abiatuz egin nahirik ari da. Intxixu taldeak, euskal historia hartzen du bere lanaren gai. Historia hori, historia horren zerbait una eta pasarte (Gofitar Teodosio, Orreaga, etabar), berinterpretatu egiten ditu, eta moldatze horan, intentzio burrukalari berriak eta gaurko ikusmoldeak ezartzen.

Norbaitek esango du nik aipaturikako pasarte hoiek ez direla historia, ipui edo kontakari baizik. Berdin zaio. Tontoa ez denak badaki edozein lurralde, nazio edo erresumetako historia, ipui, mito eta kontakari beterik dagoena. Baiña Intxixukoan teatrogintzaren garrantzia, oinarriko kontakari hori itxura politizatu eta burrukalari ematean datza.

Molde aldetik, esan duan bezela, pastoraletatik eta horren inguruko irudikatze mota berezitatik (xaribari, ihauteri, dantza ritual, etabar) hariturko osagarriak erabiltzen dituzte. Hala ere, Intxixukoek ez dute pastoralen egitura estua osorik errespetatu nahi izan. Imilatze ez direnez gero, eta bide hori beste espresio-mota berria-goetarako urrats bezela erabiltzen dutenez gero, ez dira tradizio estetik abiatu, tradizio bizikorrak batetatik baizik.

Alde batetik, beraz, molde zaharrei loturik agertzen dira, eta lotura horrek eszenako jokoa pautu eta ritmoa markatzen dizkie; baiña bestetik, lotura hori hausteko eta bertatik ihes egiteko askatasuna hartzen dute (eszenako likzioa beren erara moldatuz), eta horrek beren jokoa zebeldu eta osatzeko askeago uzten ditu.

Urrats ona ematen ari direla uste dut, eta beren oraingo Orreaga obra hori, egiten duten lanaren (akats eta guzti) adierazpen on bat da.

XARIBARI

Beste teatro-talde interesgarri bat Xaribari taldea dugu. Hau, Donostiako Egle hauek, Peco Sagartzaren zuzendaritzapean beste mota-tako lan garrantzitsua egiten ari da.

Hauetxerari baino gaurko abangardiako molde eta eszenako espresionismoari arreta gehiago jartzen diote, eta bide horretatik dabiltza. Gorpuz-espresioa landuz, keliua eta mimika zainduz, lan sakonagoetarako prestatzen ari direla dirudi.

Donostiako azken Euskal Jailetan umeentzat antzestu zuten Txanogorritxu oso lan ona izan zen. Teatrogintzaren beste ideia berri bat badago hola jardunean, eta ez idela bakarrik, praktika ere bai. Eta hori behar genuen.

Oraín Xaribari taldeari, eta hau iritzi pertsonal bat da, texto interesgarri eta jatorrak aukeratzeko eskatuko genioke. Badakit lan zaila dela, euskal teatroan aukera gehiegirik ez dagoenez gero; baiña merezi luke hortan sailatea.

Euskal Herriak teatro sakon eta zuhur bat behar du, azalergia eta sasi-abenturismoak gabekoa. Teatro mota horren biltatzeak, eszenarako preparazioa eta ideia sakon interesgarriak elkarri ezkontzea eskatzen du. Xaribari taldea seriozki ari denez gero, bilaketa horretatik abiatzeko egoia dela iruditzen zait.

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA



NORK KUKURRUKU...?

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

..Ez. FAGOR'ek

sukaldian

OTEIZA ONDARRABIAN

Ondarrabiako Txantxangorri, Jorge Oteizaren eskulturak han egon dira, eta hau idazterakoan, oraindik han daude. Jende asko pasa da gela haietatik eskulturen ikustera; horrek, gertakizun horrek, zerbait positiborik adierazten du: Oteizak, artista eta gizon bezela, euskal herrian (gazteriaren artean, batez ere) arrakasta duela. Eta hori, hainbeste gertakizun eta erreallitate eskas-ukakorren erdian, fenomeno positibo eta guztiz interesgarri da.

Oteiza, bere eskulturretan, estetik-inbestigatzearen langile bezela agertzen zaigu; baiña, behar bada, kreativez Oteiza bere iritzi eta alde-aurrertikako asmoak baiño haratako eramaten du: dramatikotasun adierazgarri baten mugaraino.

Arantzazuko atarian dauden apostolu baten burua han zegoen Ondarrabian: horrelako gauza triste, adierazkor eta patetikorik nik ez dut neure bizitzan inoiz ikusi. Beste forma batzuek, aldiz, Oteiza zirikatzaila eta adar-jotzaila bat erakusten digute; eskultoreak Xepelaren keiñuan (Xepelaren bere Errenteriako herriari omenaldia eskertzen ari zaion hartan) zer nolako mingostasun ukakor-probokatzailea jarri duen ikusiz, lehenik irrifarre maltzurra eta gero gogoeta illuna sortzen zaio begiratzailari. Oteizaren Xepelaren keiñu hortan, burruka luze nekagarri baten ondoren mingots guztien filosofia dago: zozate "handik" hartzen.

Oteizaren eskulturak ikusi eta sentitzeaz gain, egun hauetan herri bere "Quosque Tandem" liburua irakurri berri dut. Ondarrabiako giroak horretara bultzatu ninduen. Izan ere, Oteizaren kreativezalea ezin da bere estetik-planteamoldetako asmo gizaritsuetatik bereizi. Oteiza, euskal arima eta euskal konportamendu estetikoaren aztertzaile eta teorizatzaile izan da; jokabide estetikoak, beste jokiera eta aterabide gizaritsu sakonekin osatu eta errematatut nahi izan du. Horren ondorena, ideia eta intuizio bikain batzuk dira. Ondorena, bai eta ere, eguneroko suizidio bat da; bere buruz eten gabe beste egiten ariete bat.

Izan ere, artista batek eta herri honek ez dute, zoritxarek, gizarite maillan elkar topatzerik izan. Une historikoaren kulpaz, giro eta inguru ukakorren kulpaz, herri baten sensibilitaterik ezaren kulpaz, gure instituzioen jabe ez izatearen kulpaz, etabar. Hala ere, horrek ez du Oteiza artista galdu bat denik esan nahi, ez eta gutxiagorik ere.

Oteiza, estetik maillan eta gizarite baten beste kultur-jokabide askoren arloan, etorkizuneko belaunaldien kontzientzia kritiko eta inspiratzaile bizi eta indartsuenerako bat izango da. Hortan ez dut zalantzarik egiten.

Eta gainera, orain eta gero, Oteiza artista handi bat da. Jakifia, Oteizak oihu egiten du, insultatu egiten du, putasemek deitzen gaitu, eta horrek (es-toizismoak haizeak daramazki) min ematen digu. Neri ere eman izan dit, Ez dok Amairu kritikatu zuen... Baiña hori ez da ezer; esan nahi dut, hori Oteiza da. Oteizak, gauza utopiko garratz-mingots askoren erdian, ukabila añaño egia esaten ditu, eta Oiarzango eliza bezain intuizio handiak edukitzen.

Gainera, eta hori gero eta garbiago ikusten da (Euskal Herri eta Espainiako eskulturan zalantzarik gabe), Oteiza artetgintza eta irudigintza berei baten planteatzaile eta aintzindari izan zen. Irudigintza hori, euskaldutasuneko kutsaturik dago, eta, era berean, unibertsal neurri-problematikara irekia.

Batzuek zera ziote, Oteiza agorturik omen zegoela. Alegia. Ez dut uste. Gainera, agortzen den gizonaren giza-tasun-neurria, eta agortu egin dela alortu duenaren joko garbia (Oteizak sekulan ez du eskulturrari uko egin, bere zikloa osatu duela adierazi baizik) askoz atsegingarriago zaizkit, ez eta beste zenbait artistaren eternotasun-oparotasun hantuste hori baino.

Oteiza agorturik dagoela? Oteizak, beste batek zioen bezela, ez dakila eskribitzen? Bueno; ez dakit. Nik ez dakit beste hark eta beste honek eskribitzen jakitearekin eta arte eternoarekin zer esan nahi duten. Baiña Oteizak zer esan nahi duen, eta zergatik burrukatu den, bai, hori badakit, hori, osorik ez bada ere, ulertzen dut, eta emozionatu egiten nau.

Eta eskultore bikain bat dela ere bai, hori, nik ezik, beste askok daki... Agorturik dagoela dioten hoiek dakiten bezela. Agorturik dagoela esan, baiña bere moldetatik eta izpiritutik zurrutaka edaten duten hoiek.

Zeren eta, kapillatxoetako belarri-berotzeak aparte utzirik (eta oportunismo politiko-artistikoak ere bai), honako hau esan behar da: Oteizak gabe ere, euskal artearik izango zen, seguru aski, baiña euskal artea izatearen kontzientziarik, behar bada ez. Eta hori, oso oker ez banago, zerbait baiño gehiago da.

ERAMAN-EKARRI'rako

AGENCIA

Transportes A L E

EUSKAL IRRATSIAOK

ERRI GUZTIRAKO

Urrutizkiak: 421869 - 427728

Iparraguirre, 8 - DONOSTIA

Donosti-Currerki-Kutxa

**EUSKAL IRRATI
SAIOAK**

Banen baneko azikal
Ongarri ta abonoak
Bela Zuloak
Erosi edo berritzeko diru
aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perira Joan
etorriak

Baserriaren alde



**YOGUR
GURELESA**
GOGOZKOENA



LIBURUAK

EUSKO LURRA

Euskalerriko Lutelestia

ETOR editorialak Eusko Lurra. Euskalerriko Lutelestia delitu geografiko sarrari ekin berri dio, eta dagoeneko argitara emana du lehen alea. Guztiara hamasei alek osatuko du sorta guztia, eta hilean bat argitaratuko omen. Lehen, agertu berria, Mendiak izeneko arloari dagokio.

Lan guztiz polit eta ederra, era honetan geografiaz euskaraz atzeratzen den lehena. Bazen halako hutsune nabarmen bat gure euskal munduan, eta Iñigo Agirre zulo hori bete asmoz etorri zaigu. Egia esan, lehenagotik ere badira geografian lan guztiz interesgarriak—Jose Luis Lizundia ANAITASUNA eta JAKINEN argitara emandakoak baitak— baina metodo mailan zehatzagoak izan badira ere, ez du te honako honek izan duen komertzializazio eta zabalkunde aberatsa. Behar bada, galnara, adin eta maila desberdineko irakurleagorentzat burutuak izan dira.

Eusko Lurra deritzen sorta berri honetako lehen alea aztertuko badugu, bi ikuspegiaren arabera azter dezakegu. Bata, lehena, metodo bezala, geografiko-metodo bezala alegia, eta bestea, euskarazko argitaldiari soilik dagokion aldetik.


Metodo, metodoz, euskaraz zein erdaraz berdindak izango direlaokoa gaudu (gatzelazkoak ikusteko aukerarik ez dugu izan), eta, dena den, zer esan gutxi izan daiteke hamasei aleetako lehenabizikori bakoitzari ere gagozkiolarik. Euskal argitaldiari buruz bada, ordea, zer esanik aski.

Hain zuzen, euskarazko argitaldia Andoni Azkue, Lino Akesolo eta Jesus Gatañagaren ardura-pean egina bide da, eta «ardura» alpatzen ez dakigu zer esan gura duen, hau da, Iñigo Agirrearen lana ote den, gero gaingiroki zuzendua, ala hirukote horrek hasi eta buka itzuli behar izan ote duen. Berez, keta honi garrantzitsua deritzagu, zenbait gauza harrigarri iruditzen bait zaigu.

Gainbegiratu bat emanez gero, nabarmen da lehen eta behingoz halako terminologia bitxi bat. «Eusko», «Lutelestia» eta halakoak onar ezinezkoak ditugu gaur egun. Are gutiago «zelai», «pago-basoak» etab. Baldin euskal toponimia ezartzen aberatsa bada, geografiko-delturatan da, eta bada hor harrobi ikaragarria asmatzen barregarritan iherdun gabe. Ortografiak, berriz, «jeoljia» eta horrelakoak idaztean, Aita Mujikaren hitzgia bera ere ez da kontutan hartu.

Toki izenei dagokionez, nabarriak iruditzen zaizkiguna baino alpatuko ez baditugu ere, «Altzgorri», «Altzgorri» da, «Salvada», «Garobel» euskaraz, «Aiz-Lunbier» arroak «Agoltz-Irunberri» behar luke, eta «Anie» tontorra, berriz, «Añamen-di» da. Bestalde, «Añamen-di» ez da «Pirineos», oraindik zenbaitetik ez badaki ere. Era berean, «Urkiolamendi» «Urkiolagire» da (Iñigo Agirrek, Elorriokoa denez, jakin behar luke), «Irurzun», «Irurtzun», etab. etab.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, eta haretaz gauza askorik ez dakigun arren, begi bistan da «Goi-Zuberoa» asmatzen hutsa dela, «Haute-Soule» delakoaren itzulpen eskasa, eskualde hura betidanik izan bait da «Basaburua» edo «Basaburia» euskaraz. Era berean, euskal testu batetan «Endaia-Plage» irakurtzeak negargura ematen digu; txarrenean ere (H) Endaioak Ondartza edo halako zerbaite izan behar bait luke gutienez. Bestalde, «Laginga» herriaren euskal izena «Liginaga» da, eta Donibane Loutzune... Lohitzune, noski. Hain zuzen, ipar aldeko herriei dagokionez, L. Dassance euskaltzainak argitaratua du Herrien eta Herriarren (Baiona), eta era honetako liburu izenak euskaraz («Gure Herria»... balloitsuak ezin daitezke hain erraz



batzer Euskal Herriko geografia moldatzean.

Terminologia arruntari buruz, bestalde, badirudi arlo hau labangarriko dela, eta Iritzia iritzi, ez gara noski denok bat etorriko. Dena den, hasieran esan bezala, badirudi «pago-basoak» baino «pagadiak» jatorri dela, eta «zelai», berriz, asmakizun berria baino ez dela. Hain zuzen, zorioneko atziki horretaz ari garenez, eta Gatañaga tartean galnara, ez dugu inolaz ere uste «La Llanada Alavesa», «Araba Zelaldia» izan daitekeena. Arabako eskualde lau-lau hori ez bait da zelai multzo bat, lautada bat baizik, herriak berak esan ohi duen bezalaxe. Era berean esan genezakeen, «sakana» «barranca» dela, «depression» baino hobeto, eta beste honek zentzualt. Edozein modutan, honetan bai behintzat... Iritzia iritzi.

Iritzia iritzi, bai, Euskal Herriko geografia hau moldatzean Euskaltzaindiaren ardura-pean burutzen ari den «Zortzi urte arteko Ikastol-Hitzegia» ez ote zen kontutan hartuko salatu genuen orain dela zenbait hilabete. Erantzuna zehatz izan da, hau da, kontutan hartua bai, baina ondo iruditu zaien neurrian onartua baino ez. Zertarako biltzarak, zertarako hitzordak, aldezturik ez ari izan ez bagatzena, kio eta gero gustatzen zaizkiguna baino onartuko ez baditugu?

Baina, gaiari jarraituz, eta nola bait emetitzeko, hiru puntu baino ez, azalkiro, labur, labur.

Geografia fisikoa probintziak ematea euskal batasun guti sentitzea dela uste dugu, guti pentsatzea behinik behin. Eta geografiaz, galnara, inondik inora ez onartzekoa. Nola azter daitezke ba mendikateak hiru edo lau mugaren artean? Gorbela ez ahal da bizkai-tarrena arabarrena beste, edo gipuzkoarra bezain arabarra Arantzazu inguru guztia? Ez gara ba ari esaten historia, ekonomia, soziologia, irakaskintza, eskualdeak aztertzen behar ditugula. Nola aralo ba, zer eta geografia? administrazio mugaren arabera?

Mapetan izenak erdaraz jartzea, berriz... barka ezinezkoa. Esanak esan ez dago atxakiaz. Euskara bigarren mailan, erdararen morroi. Liburuan barrera erdal izendegi ofizialaren toki izenak jartzea ere...

Baina norentzat eta norentzat? Saltzaileek diotenez, liburuak hau ondo esko saltzen ari omen da, erdarazko argitalpena baino, nonbait. Bi ediziook batera ateratzea, azken bat tipikal zaleentzat geratuko da, auskalo zer nolako abertzaletasunaren erakusgarri.

Liburu honen gauzarik onena, behar bada, sumatu nahi zelon helburua, edileon asmo eta gogoia, inprimategi lana, eta nahi eta nahi ez, hizkuntza batez zein besteaz, Euskal Herriko geografia ezaezteari eman ahal izango dion bultzada. Txarrena, agian, Euskal Herrian gal honetaz ahalentza dakitena... zentzualt gehien salatu direnak— kontutan ez hartzea.

Hurrengoan gehiago eta hobeto. L.A.A.

TXUKUNDADA

Ez dakit gure arteko jendea zenbateraino garbitzen den, baina, zelanarik gabe, gaur gehiago baloratzen da garbitasuna, aurreko gizaaldietan baino. Egia da, mikroskopioak ez direla atzo goizean asmatuak, baina zientzi bideetan aurkitua eguneroko bizitzara aplikatzeak denbora eramaten du. Gure ahoan edo solneko beste alderdietan mikrobizidunak pilatzen direla, gaur baino lehenago bazekiten zientifikoei. Baina, gaur arte ez da herriko jende xehearen artean ahoa eta solneko beste alderdiak garbitzeko—zikin dauden guztien garbitzeko—ohitura zabaldu.

Gaur ere oraindik perfumek gehiago erabiltzen dira, solnaren higie-ne osorako behar diren tratatubideak baino. Herodoto aspaldiak historiagileek dienez «persen erregea urtean behin garbitzen zen, bere erregetzaren urteurrenean hain zuzen. Halere, beti ongi perfumatusa ibiltzen zuen». Perfumek lehenago ismetu ziren xaboiak baino.

Orain dela 3500 urte baino lehenagotik dira ezagunak balnearak, baina 1837 urtean oraindik Buckinghamko Palazioan ez zegoen bainu bat ere. Izan ere, urte luzetan zehar, solnaren garbitasuna ez zen begi onez ikusia izan. Santa Ines, bere bizitza guztian inoiz garbitu gabe itxi zen. Santu izatea eta ahal zen guttiene garbitzea, elkarrekin ikusiko ditugu gizaaldietan zehar.

Gaur egun osasunaren ataritzat hartzen da garbitasuna, gaixotasunik sor ez dadin, beharrezkotzat. Eta HIGIENEa alpatzen da. Hitz garestia noski XIX. mendearen jakituria urratzen. Zer da «higieenea», irakurle?

XIXANGREA



ZERUKO ARGIA BIZKAIKO ERRI AUETAN SALTZEN DA:

MARKINAN
M. Loli Aginaga,
Artibay, 24

BONDIKA-ABUA
E. Astariza

LARRUSKAIN
Parroquia

GERNIKA
Ruiz Bustillo

ONDARROA
M. Zulaika

BILBAO

Libreria Armendariz
Dr. Arellano, 50
Libreria Azkategui
Cinturero, 4
Libreria Bilbaina
Piazza de los Mirros, 2
Libreria Verdes
Correo, 7

GALDARAKO
J. Alvarado

LIBURUA
Libreria 31

ABARROA
J. E. Zubizar

R. Durrantia y

Donostiako

ZINE - JAIALDIAREN OIHARTZUNAK

Aurtengo zine-jaialdia aspergarri eta neketsu joan zaigu. Beti bezala, Donostiako zine-jaialdi nagusiak baldintza ekonomikoetan tinkeratuz jarraitzen du. Urteaz urte hortxe dirioa kaxkar, bare, kezka eta larrian... Aurtengoren zinebait muntro miresgarri heldu zaigu Donostiara. Hortxe ibili dira Loren, Burton eta besteak bere handiakiak harrotzen eta, zoritxarrez jendea atzetik zihokiatela. Hainbestera inoizko iturakeriak zertarako balio ote duen galdetzen badugu zer esan handirik ez dugu izango, noski; behar bada diru dario polita dela esango genuke. Esan diezagu Donostiako Udaletxeak zein laguntza sendoa eman behar izan dien zine jaialdi eratzaleei bere hutsuneak berdintzeko...

Pena da, baina Biarritzera joan gabe zinea ikusi nahi dugunok, aurtengoren Donostiako zine aretoetatik eskutik eta minbera itzuli gara. Bazen aukera bainan kaxkarkeria hutsuan. Telesbaitan ikus ditakegun filmatoak gehienetan. Atzo bateroak, gaur, berriz, elektronikoki usatzen. Dena dela, berdintzen. Horretarako zenbait metodoz jabetu gara aurtengoren. «Informazio» ekarri dizkiguten filmak, berriz, alemanez eta ingeles izanik, jende askok ulertzen arkitu ditugu. Gazte jendea honek errespetu pittin bat ez ote du ba merezi? Ez da harritzeko, gero, Astoriako solairutik Etxarriren burua eta belarrak eskatzea... Behin baino gehiagotan eskatu izan dira. Ez penitentsia, ordea, emango dizkigutenik!


Aukeratzaleek izaten dituzten akatsak ondo ezagutu ez arren, USAko poliziak salatzea, hango

justiziaren metodoak arbutatzea eta horrelako errakerietan sartzea, zuriak hutsa jotzen dutelarik, hango zinegilean lanetaz baliatzea, hango egoera, gure gurea den giroa baxtertuaz egiten dena...

Donostiako jaialdi honek, beste urteetan bezala, lau oinarrien gainean jasoa jarraitzen du: Lehiaketa, Film multzo komertziala, Informaziozkoak, Mahaburuen film hautatuak. Aurtengoren ordea, bazen berrikuntza bat, zinegile herrien erakusketak, agian. Erakusketak horren barnean ikus daitezke zinegile gazte, sutsu eta atzerale asko. Bere filmak ez dira izango helduak bainan bere ikuitu interesgarriaz herriurik agertzen zaizkigu. Ez da gutxi, ez bai da giro Lehiaketa azaltzen zaizkigun filma tartean...! Halaz ere, Zine-jaialdi honek sekulako hutsunea du: hau da, ez dagoela ez zine solasaldiak, ez eta mintzaldirik, ez eta atzerketak girok. Dena, zine parasta nahastu batera mugatzen da. Eta horri kaltegarri derizkiot. Aurtengo atal berria, eta beste alde ahaztu hau lantzen bada Donostiako zine-jaialdi nagusiak merezi duen etorkizuna ikusiko du inoiz; bestela harrokeria galgarria basterik ez da izango eta horrelako asko dago munduan Donostiara etorri gabe. Ikasteko garaia bada ba!

Euskal girotik begiratzen badiegu berriz, hobe da ixilik egotea. Poliki dabil «gabon» edo «eskerrikasko» epel bat esanik asetuak gaituela pentsatzen duen hori!

Jesus Mari ZALAKAIN



Ez Merkenak

Bai Onenak!

Jeneri bidez izaten dira gaudu on, indartueak, Eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak, Berretziko aragi pillak; gafiara esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERREENTERI

baztan

Urriko feriak urbiltzen ari zaizkigu. Aurtien 25ean ospatuko dira, beti izaten bait dira San Lukanen ondoko ostralean.

Orainko feriak lehenagokoen al-dian deus ez dira. Antzinako den-boretan Elizonko Urriko feriak ga-rantzia haundia zauten eta be-re fama Euskal-Herri guzian ba-rreiatua zegoen. Orain ez da ho-lakorik, hemen ere bertze leku gu-zietan bezala gauzek aldakuntza izigarria egin bait-dute, horretaz orainko feri hoieri etzaiote izena baizik gelditzen.

Halere izenak irauten bait-du, egun hortan Elizondoko herrian jende aunitz biltzen da. Merkatu-ko plazan azienda ederra erakus-ten dute eta sal-erosketak ere iza-ten dira. Jendea ibiltzen bait-da, ostatuek eta komertzioek ere egun ona izaten dute. Badakigu dirua purrusteka baldin badabilla irabaz-bidea izaten dela eta jendeak zen-batenez eta gehiago gastatzen duen orduan eta feri hobeak izaten di-rela. Bolai huntan nik uste jendea murrizt dabilela eta bazterretan badela arrankura, hortaz badakigu gisa hortan espantu haundirik ez daitekela egin baina egia erran ez dakigu zergatik baina jendea ez da egoten gastatzeko beldurrez.

Igaz eta aintzineko urtetan be-zala aurtien ere bertsolari besta eder bat egin gogo dugu Antxito-neko trinketea, jai hortan lau bertsolari ariko direlarik:

XALBADOR. MATTIN.
LASARTE. LAZKAO-TXIKI

Feri eguna izaten da dudarik ga-be urtean den egunik euskaldune-na, hemen biltzen bait-dira Baztan-go nekazari gehienak eta bai Bi-daso, Ultzama eta Lapurdi eta Ba-xenabarreko jende euskaldunak euskaldunak ere.

Denak etortzen bait-dira Elizon-doko ferietara egun atsegingarri bat iragaitako nahikeriarekin. Ho-rretaz gure bertsolari jai horrek sekulako arrakasta izaten du, An-txitoneko trinketea leporaino bete-zen dela. Orain gauzak gerta dai-tezila guk nahi bezala.

Bertsolarietaz mintzo garenez ge-ro aipa dezagun Azaroaren 17an Donostian eta bertsolari zaharren omenez egin beharra den jai eder hori. Denek badakigu hamabost bertsolari badirela omendu beha-rrak eta hoi en artean hiru nafar-tar. Hoiek nahi ditut goraiatu. Klemente Ezkurdia Gorritiarra bai-na aspaldi hortan Elizondon bizi dena.

Simon Ibarra Sunbildarra hau ere aspaldion Bankan bizi dena.

Jose Mari Mutuberría Eltzabu-rukoa.

Hiru bertsolari hoeri gure zorio-nik maitekorrenak.

M. IZETA

M. A.

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EDARI GUZTIAK

Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutziak: 41 20 65

DONOSTIA

basauri

Euskal Herriko Ilgarren dantza agerketa nagusia eratu da Basau-rin Urriaren 20rako.

Arabak: Gastelzko «Indarra», Ara-bako dantzak.

Bizkaia: Berriko «Nagusia» eta «Zortzi Elduak». Dantzari dantza, Soka dantza, Bilboko «Bizkaia», 51 urtetatik gorako dantzari bikoteen agerpena.

Behenafarroak: Behenafarri o a k o Libertimendia. «Ramuntxo» Fanfa-rria.

Lapurdik: Donibane Lohitzungo «Begiraleak». Lapurdiko ihauteri.

Zuberok: «Zuberoko dantzariak». Zuberoko dantzak.

Gipuzkoak: Donostiako «Goizal-di». Gipuzkoako plaza-dantzak, Gi-zon dantzak.

Nafarroak: «Baztango Dantza-riak». Mutil dantzak, Irri dantzak, Gaita. «Iturengo Yohaldunak».

irakurleak mintzo

Jaun agurgarriok!

Harpide berri baten eske natorkizue. Atzerri alde hortan bizi garen euskaldunok badugu herriko berrien grina. Nola ez herriatik atera eta herrira itzultzeko asmotan ari garelarik.

Gogor ari zarete lanean eta gero eta apainago, gero eta hornituago ikusten dugu Z.A. Ekintza bikaina zuena eta eus-kaldun guziok hartu behar genuke hortan parte. Hori ere iritxiko da. Lehenik euskalduntzen lan, euskalduntzen ala eus-kaldunagotzen.

Geurok ere ipini beharko dugu geure aletxo. Gogorik ez zaigu falta eta hortarako unea ere iritxia dela esan behar. Belxikako berri ematen entseatu behar ginake. Hemen Flan-dere-Walonia alde hotan bada berri jakingarriak euskaldunon-tzat eta hemen gabiltzalarik geu gara hoi en berri emateko egokienak.

Bidal ezaiguzue beraz Z.A. eta saiatuko gara gu hemengo berri biltzen.

J. M. A.

ZOZKETA 3 BIZITZA

Irabaz ezazu etxe bat gurekin aurreratuz



Jartzen duan milla pezeta bakoitzeko txartel bat jasoko du, eta baita leenago jarrita daukan 5.000 pezeta bakoitzeko ere.

Baïña gutxienez milla pezeta jarri bearko ditu.


Aldi-jakiñeko kartillaren bidez zenbakiaz jabetzeko, ordenadorez 5.000 pezeta bakoitzeko zenbaki baten jabe izango da. Saldoan zenbat 5.000 pezetako ainteste zenbaki jasoko ditu.

Aldi-jakiñeko kartillaren bidez zenbakiak eskuratzeko Gipuzkoan zehar "Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa" etxeak banaturik daukan 91 ofizinetara jo dezakete. Aldi-jakiñeko kartilla eta Noiznaiko libretak irikitzen ditunak txartel bat jasoko du milla pezeta bakoitzeko.



CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

zaldibia



IRAOLA TXAPELDUN

Gure herritar Olegiko Patxik irabazi zuen aurtengo eta laugarren Zepai saria.

Oso ezaguna degu guk bertsoari hau eta sarri entzundugu berri.

Laugarren aldian zuen aurtengoa-ekin sariketa hontan parte hartzen zuela, eta urtero hor ibili aurreko puntan. Orain bi urte bertso onenaren saria berak irabazi zuen.

Nerbioan antxean egoten dala esaten du berak, txapelketan, bertsoan jardun behar duenean. Tabernan eta plazan txapelketatik kanpora ari danean errezagot dala esaten du berarentzat eta ez da gezurra. Iraolak ba daki bertso ede-

rrak moldatzen plazan ere, esatera aberatsak ditu, bukaera zorrotzak, baina tabernan ikusi behar da hura bertsoan gogo piska batekin ari danean. Oso goi mailakoak izango dira gehienetan hark kantatzen dituen bertsoak.

Zorionak patxi jbejaundeikela! Eta zorionak baita IV Zepai Saria antolatut dutenei ere.

Idiazabal txoratzan naukazu begira.

Zure jokabideak Jatorrak hain dira.

Jendea bultzatu nahi.

iturri garbira,

ilunpetako lorak

egukuzki argira

Ai! zure antzekoak

gehiago balira!

Aurrera Bitxor, eta zori ugari izan dezazula opa dizugu.

ERIoTZA

Irairlaren 29an, Jaunaren pakean il zen Altuna eta Urkiditar Manuel Andre on eta kristau zintzoa. Golan bego. Bere senar Motrikotar Joxe Mari semealabei, illobel eta beste seni guztiak gure doluminak.

ANDONEGitar Z.

lesaka

Lesakako BETI-GAZTE eta Berako GURE-TXOKOA Elkartearen izenean, jaialdi eder bat antolatu dute Lesakan, hil honen 11, 12 eta 13rako, orain sortu berriak diren Berako eta Lesakako Ikastolen alde.

Bidasoko herrietan euskararen heriotza igerririk, azkenik Ikastolak sortzea beharrezkoa dela ikusi dute. Horrela, aurtun, hain xuxen, hil honen 2an, sortu dira Lesaka eta Berako Ikastolak. Gazte talde baten lana izan da, batez ere, Irulñeko Diputazioaren laguntzarekin. Diru problemak ikusirik, Lesakako gazteek, igaz (lehengo urtean) halako giro jatorra sortu zuten Euskal Astea gibelatu, atzeratu egin dute, indar guztiak Ikastola hoiengintza biltzeko.

Oraingoz, eta diru laguntza bat eman beharrez, hona zer antolatzen duten:

URRIAREN 11an, gaueko 10 t'erdietan, EUSKAL ANTZERKIA: INTXIXU taldeak, "ORRIA 78" pasturala.

URRIAREN 12an, gaueko 11etan, EUSKAL DANTZAK:

Donostiko "ARGIA" Taldea.

URRIAREN 13an (igandea), arratsaldeko 6etan, ABESLARIEN JAIALDIA:

XABIER LETE, LOURDES IRIONDO, PANTXOA ETA PEIO, LUPE eta JOSU GOYA.

Tartean, bi bertsoari gazte.

Jaialdi hauek Lesakako Pillota Lekuan izanen dira, eta han biltzen den dirua, Lesaka eta Berako Ikastolen alde da, erran dudana gisan.

BIDASOA

laskano

AZKEN ALDIKO LELOA

15 egun ditugu, ikastolako juntak guraso eta laguntzaileek batzarrak batera deitu zela. Batzarrearen eguna, urriaren 2a; ordua, arratsaldeko 8,30ak.

Betiko leloa, atzo, urriaren 2an asistentzi aditetik nahiko pataila izan zen. Dena den, batzarrea bere orduan hasi zen.

HAUTESKUNDEAK

Lehenik, Lazkaoako ikastolaren juntako mahaikide batek ihazko aktan gelditu zena aditzera eman zuen. Hau da:

—Urtean zehar, haur bakoitzak 250 peztako kuota ordainduko zuela. Alegia, hau minimo bezala. Hori gora ere bakoitzak gehiago eman zezakeen. Kandidate hori ezin bazuen pagatu, haurra ez zen kalera joango, baizik eta laguntzaile eta beste bide batzuek kuota minimo hori osatuko zen.

—Urtero egiten da junta berri-zaile. Eguna, junta 12 mahaikidek osaturik dago. Aurtun kurtsoa hasi delarik, berriroko garaia iritsi da. Baina lehen esan bezala, aktan geldituko da beteko da. Alegia, 12 mahaikide horietatik, 6 aldatzen ziren; baina, aurtun hasirik, 1/2 aldatu beharren, 1/3 aldatuko da. Alegia, lehen 6 aldatzen ziren bezala, orain 4 aldatuko dira.

—Junta berrikuntzaren inguruan. Lehen, 4ko taldeak egiten ziren; alegia, kandidato pertsonalak izan arren, 4 kandidato ziren multzo bakoitzean. Honela, 2 edo 3 multzo izaten ziren kandidato desberdinez. Baina aurtengo kurtsoak hau erabaki zen: multzo-ko kandidatura izan arren, bakarra izango zela kandidatura. Alegia, guraso ala laguntzaile bakoitzak bere kandidatura azalduko zuela (nahi zutenak, alegia).

EKONOMIAZ

Puntu nagusienak harturik, aktari atsedena eman zitzaion. Ondoren, juntako ekonomiarik egin zuen agerpena.

Lehenik, 1973-74. kurtsoan inguraturiko dirua:

Denera, 1.050.672 peztatik gutxi gorabehera bildu zen eta gastuak 1.116.328 peztatik; orduan, 65.656 peztako defizita gelditu zen. Baina azkenean diferentziak hau nahiko berdindua gelditu zela esan zuen.

Datorren kurtsoari begira, presuposioa azaldu zen. Alegia, 1974-75 kurtsoari begira.

1.162.000 peztatik pentsatzen dira inguraturak (laguntzaile, kuota, eta abar) eta ondorengoak pagatu, segurazko materiala eta abar direla-eta, 1.062.000 peztako gastu eriketa pentsatzen da.

Junta ko ekonomiarik bere agerpena bukatutik beste mahaikide bat jarraitu zitzaion lanari.

KUOTAZ

Honek tratatu zuena, datorren kurtsoari begira dago. Eguna hantzen hasia dena. Hona, aipaturikoa:

—Ikastolaren ekonomian baldintzarik ez egotearen, 350 peztako kuota minimoa ipintzea erabaki zela.

Hau dena, orain esan behar duzuna proposamen bat besterik ez da. Gurasoek refuta dezakeen hemen esana eta beren iritzia eman.

Kuotari buruz jarraituz, esan zuen, guraso batentzat zama handiegia bazen, laguntza izango zuela. Eta honekin ez pentsatzeko bere haurra ikastolatik atera beharko zuenik, alegia, ezin zuelako pagatu.

Gurasoak ahal duena eta minimoa eman behar du, baina gutxiago bada, laguntzaren bidez diferentzi hori osatuko da.

Baina gurasoren bat gehiago gaza dezakeenik baldin bada, paga dezala.

BATZORDEAZ

—Juntaren berrikuntza. Lehen esan dudana bezala, aktan figuratzen duena ikusirik, 4 mahaikide izango dira aldatuko direnak eta ez 6 mahaikide.

Baina aurtengo kurtsoan, mahaikide batek ez du juntan bileretara joaterik; beraz, aurtengoz 5 izanen dira aukeratuak eta ez 4.

Nolaz aukera mahaikide berriak? Aurtengoz, hauteskundeetan multzoak ez dira egingo, baizik eta gurasoek txartel bat bidaliko zaie. Txartel honetan bakoitzak adierazi beharko du, mahaikide izan nahi duen ala ez.

Orduan erantzunak bildu eta gero, etxe guztietara bidaliko da nor nahi duten izan mahaikide. Alegia, nor diren kandidate.

Kandidateak izanez gero, batzarrak nagusi baten bitartez 5 mahaikide berriak aukeratuiko dira. Alegia, botoaren bitartez. Guraso (aita eta ama) eta laguntzaileek boto bakarra ematea izango dute.

Berriz ere, galdetu zen, hau bigarrena zen ala ez, eta dudarik bazez galdetzeko. Inork ez zuen ezer esan, galdera bat kendurik. Zein ordu eta egunetan biltzen zarete juntuak? Langile batzuek erretseko egiten dute lana, orduan txartela betetzearan hau jakin beharra dardukate, alegia, hau kontuan hartu beharra daukate. Galderari erantzun zitzaion.

Ene ustez, hau adierazi beharra zegoen, zeren gurasoek ez dute bizi junta batek duen mundua. Erantzun zitzaion, baina...

Honera iritsiz gero, betiko KANTU, SOINU, KUKURRUKU, DEIHADAR...

KOOOPERATIBA

Denok dakigunez, kooperatiba martxan ari da. Alegia, azken aldi honetan izan dugun hazkarena. Ikastolaren barnean, bailara mailan, bi talde osatu zuten, talde neutral bat sortu zen. Alegia, beste bi talde hoiengintza soluzionatzeko. Behintzat azkenean iritsi zen memento bat, alegia, lehen aipaturiko bi talde horiek batu egin behar zirenak.

Zeren delegaduak bidali zuen agiri bat esanez, bi talde horiek ez baziren batzen, kooperatibako proiektuak gora joango zela. Alegia, zoi mailako agintariengana. Orduan, batu beharra izan zuten eta kooperatiba hori martxan jarri. Esan behar dugu, iskanbilla hau dena ikastola mailan gertatua dela, eta kooperatiba legalizaziorako bidea dela. Orduan, kooperatiba aurrera joateko, junta rektora bat osatu zen. Alegia, 12 mahaikidek osatua. Baina jakin dudanez junta rektora hau, zatitua dago: Junta ekonomikoa, junta "inter-pueblos", eta abar.

DEMOKRAZIA

Ba, atzo, urriaren 2an, junta rektora mahaikide bat han zen, galdetuzun batzuk egin zituen; gainera "CON UN SENTIDO DEMOCRATICO". Ematen zenez, ez zuen komeriarik egin nahi, baina, beti bezala, gure artean aski komeriantz badelarik, KOMERIA la-za sortu zen.

Hau galdetu zuen, ¿cómo es que se ha hecho esto sin contar con los de arriba?, alegia, junta rektorekin.

Erantzun zitzaion, juntuak hori, bere borondate onenez egin zuela. Junta rektora batekin egon zirela eta ez zitzaizkio gaizki iruditut. Kurtsoa hasia dugu eta oraindik junta rektora horrek ez du ezer esan. Alegia, juntuak (ikastolako alegia) egon behar ahal duen, andereñoi zenbat pagatu behar zaien, kuota zenbatekoa izango den, eta abar. Honela, ikastolako juntuak erabaki zuten hori egitea, bailarako ikastola guztiak kooperatibatik dependituz behar duten arte, lehengo marxari jarraituz.

Ikusten denez, ikastola guztiak 12 pertsonak eramana izan behar du. Betiko zentralizazio ahula.

HERRIA?

Ikastola ez ahal da herriarena, gurasoena? Herri bakoitzak eraman dezala bere ikastolako marxak, legalizazio alderdia kooperatibatik dependituz.

Baina ez, hain ikusi zenez, junta rektora mahaikide horrek, dena zentralizatu egon behar duela ikusten du.

Eta beste galdera bat, ¿cómo es que vais a cobrar 350 ptas de cuota a cada niño si es que la junta rectora decide que sea de 400 ptas? (oraindik erabaki gabekoa eta kurtsoa hasita). Betikoa; jendearen

reakzioa: batzuek dena soluzionatu nahiaz, eta besteak on egiten ari zirela, komeriantzaren hariak lotuz.

Betiko leloa, ARRIBA, si es que ARRIBA... ARRIBA DEMOCRACIA, ABAJO... MAS ABAJO... NOIZ ARTE?

Azkenean, guztiak junta rektora erabaki zezala esan zen, hain egin zena inongo intentzio txarrik gabekoa egin zela. Orain, junta rektora zer edo zer erabaki arte honela geldituko gara.

Baziren guraso berriak, aurpegi berriak. Gainera guraso erdalduak ere bai. Aspiadrian asanblea batetaren izan gabekoa. Zer pentsatuko zuten ikastolaren munduan, halako enfrontamendu, kukurruka eta abar entzunik?

Gero betikoa, asanbleetara gurasorik ez da etortzen. Zergatik ote da hori?

Jende berri horrek, bailara, kooperatiba, botazioa, demokrazia, juntuarekora, eta abar entzun eta zeri?

Galdera eta enfrontamendu zentzu gabekak izan ziren. Ona baino txar gehiago izan zuen atzoko batzarrean.

Aurtun, andereño berri bat dugu; gainera, herriko. Urtero andereñoak faltaraten dira; la herriko neska ala mutil prestatzen diren ikastolaren munduan sar daitez.

Neri behintzat, herrian KOMERIARAKO ARETORIK ez izan arren, atzoko KOMERIA ez zitzaizdan asko gustatu.

HERRIKO ETXAGINTZA

Zer gertatzen da Olaberriko bide-gurutzetara, xalea eta Tiburtone atzeko etxeekin?

Nolaz utzi daiteke etxe herriko egiten? Alegia, bide-gurutzetara etxe hor ezin daiteke egin, zeren bidearen erdilik hainbeste metro behar dira eta ez da kasu honetan horrelakorik.

Txaleak eta ez aski metro kubikorik, eta bueltan egiten ari den eskilara ez da itxurazkoa.

Tiburtone atzeko dorreetan berri, batetik bestera pas daiteke salto bat egin. Nolaz, gaurko munduan, horrelako urbanizaziorik?

Badirudi, betiko aprobetxatu nahia, dabilena nagusi; batek kargu bat ducenean herrian nagusi, alegia.

KUTSADURA

Gaur Ataunen izanik Irutxiki aldera iritsi naizenean, al zer nolako laino harrigarria. Nere artean, zer izango ote? Betikoa, laino artifizial kolore gorri, murroi, urdin; zer ez? Pentsa, hau herri barruan dugu eta pixkanaka gero haizea denean, herri barrura etorriko dela. Orduan, zer?


Badirudi mundu berri honek izugarriko arrakasta ekarri behar duela.

Lantoki hori, "Fundiciones Echeberria" da; herriatik aparte dago, baina ondoan baserriak daude. Hango belar, soro, fruitu: zer? Nork izan behar ditu haiek? GUK. Eta zer, eta zer... Beti berdin, beti berdin abesti batek esaten duen bezala.

JAKINTZA ASTEA

Honetaz beste batean hitzegin dugu, oraingoan astirik ez dugu izan eta.

KIRATSA



idiazabal

ZAHAR EDO JUBILATUEN
EGUNA

Aurten ere Irailaren 21 eta 22an, urtean zehar gure herria antolatuta ohi diran egunik ederrenak izan genituen. 21an, Guraso elkartearen biltokian, izan zuten jai-aldia, oso herriko eta ikusgarria, nola artista hala herriak jator erantzun zuan eta jendeak naiko parre eginiñ irten zuan lokaletik; garbi nabarmentzen dena da, herriko artistak parte hartzean, jendeak erruz erantzuten duala eta maizago egin behar genituzkeela era hontako ekintzak.

22an, hamaikaterdietan meza nagusukarekin eman zioten egunari hasera. Ondoren bertsolariak herriko enparantzan, eta ordubetan bazkaria, AMPO lantegiak uzten duan jai gelan. Ehun eta hamabost jubilatuta, bertsolari, soinu-jole eta abar, ehun eta berrogeita hamarren bat lagun bazkalzten eta gainera sukaldari eta zerbitzariak. Bazkalondan, ikustekoa zan hango umorea, bertsu, soinu, txistu eta alaitasuna. Tarte batean Aurrezki kutxa Probinzialak eskeintutako oroi-garri eder bana partitu zuen Mari Terek zaharren artean eta beste bi oroi-garri banatzeko dira herriko gizonetako eta emakumezko zaharren artean. Bazkalondan bertso salo eder bat entzunaz eman zioten egunari bukaera. Bazkaltera joaterik izan etutzenel, hau da, gaixo arkitzen diranel erregalitxo bana emango die Guraso elkarteak, honela gure aurrekoiei omen txiki bat egite arren.

BERTSOLARI TXAPELKETA

Ez dugu IV. ZEPAI SARIAZ ezer esango, «Ibai-ertzeak» edeki aipatzen bait dugu 2. orrian.

Arratsaldeko bertsorik onenaren saria Narbaizak eraman zuen. Uztapideri eskeiñia denez gero bertso haxe bakarra ipiniñko degu.

Iñoliz edo bein aitu izan diot bertsotan duan kurrupilla, arren ondoan aundia izaten

edozeñentzat da zailla, gu nora joan gindezke orain obeago baten billa, bertsotan maiku paregabea eta biotzez humilla, urte askoan gaur bezelaxe gogortsu bizi dedilla.

AXARI

bergara

ALKATE BAKARRA

Errepublikak denboran izan genuen azkenengo alkateak, ZUBIZARRETA, AMUTXASTEgitar INAKI jaunak larogaita amar urte bete ditu.

Azken urte aukeriparaldeko Euskalerrian igaro ditu, bainan joan dan urtebete ontan Bergara ontan degu, bere illoben etxean.

Oker ez bagaude, geratzen den, Errepublikak denborako Alkate bakarra da.

Bergararrok, beste gizon bat badegu, aurretik erri ontan Alkate izana: UNZETA, URKIZUTAR INAKI jaun.

Beste urte asko gure artean opadogu biotzez.

Eutsi goiari, Dn. Iñasio!

SAN MARTIÑAK

Aurten danborrada ezian, beste jai mota batzuk izan ditugu. Moto-cross, igariketa, pintura txapelketa da baita bikote dantza sariketa ere. Jende talde aundiak izan dira aukerak izaten. Ezagunda jendearen gogozkoak direla.

Suzko erroberak, azken urte ontan bezala, pelota tokiko plazan izan dira. Lekua ez da aukerakoa; galdia bekio bertako baratzariari, baiñan tira, beste tokirik ezian nonbait egin beaz. Suzko-erroberak, San Martiñetan gauza derrigorrezkoak dira, erri guzia an izaten bait da. Baiñan urte batzuk badaramatzagu alako su ganoragabeko, labur, merke, mixerablik ikusten; ez dugu uste, Bergarako erriari alako jai aldi traketik opa dakiokenik.

Au eskatzen dugu: Udaletxeko jai-aldiaren batzordeak aukeratu ditzaia.

ERITOTZAK

Akizu, Etxeberriatar Nazario il zaigu 84 urterekin. Bergaran eta inguruko errietan ezaguna genuen. Mizpildi kaleko errementaria. Jau-nak, eman diezaiola betiko atsedena.

Aiastui eta Arrietatar Claudio ere aldendu zaigu. Ezagun zan gure Klauidiok zenbat lagun zuen, San Pedro eliza nagusia bete-bete egin da agertu zan, Gizon onen laguntza izan ez duenik ez da izango gure erri ontan, betez ere mendizaleak zerbaiz esan lezakeko laguntza on buruz: bere berebilla beti gertu egoten zan bidean zear ikusten zuanarentzat.

Gure Orfeoiko baxu abots one-netakoa. Onak utzi dun utsunea ezagungo da g.b.

MENDIKOI

arrasate

GAU IKASTOLA

Irailaren hamaseian ikastero berri bati hasera emen zitzeon. Hiru hilabetetan zehar emanen dira ikasgaiak.

Lehenik, iaz baino jende gehiago joan dela esan behar dugu. Ehun eta berrogei izan dira beren izenak eman dituztenak. Eta gainera, hau garrantzitsua, gazte askok. Zer da lumero hori, gurea bezain handia herri batentzat? Baten batek esanen digu.

Oraindik hasten ari garela, askotan alpatu dugun bezala, bada-dugu. Oraindik gure herriaren buruetan arazo baten ezaguera sartzen ari dela jakina dugu. Eta oraindik, lehen jarri dugun zembakiek goruntz joan behar duela ezaguna da.

Ikastaro honetan geroko gilitza dadukagu. Baldin jendeak ikasten

badu eta jarri diren helburuetaraino iristen bada, datorrenean oinarri gogor bat egin izanen delako. Irakasle guztiek erresponsabilitate handia hartu dute beren sorbaldeetan. Irakasle asko batekin joan dira ikastatu honetara: Gure kulturaz gehiago jakiteko, Eta hau lortu egin behar da.

Eritzi askotako herri batean bizi gara. Batzuentzat gure asmoek ez dute ezertarako balio. Hizkuntza, kondaira... dena baztertu behar da kanpotik etorritako eritzia heda daitezen. Hau mixeria! Nork esan du euskaraz etorkizunik ez dugula? Nork esan du iragana galdu behar dugula geroari ateak zabal diezakiogun? Nork esan du arrotz izateaz jantzi behar dugula gure nortasuna ahaiztuz? Galdetara hauen erantzun gogorra emateko honelako ikastaroetan aukera izaten dugu. Aurreruntz beti gure helburuekin, Euskal Herriaren zati bat garela ahaiztu barik. Konformistak garela nor esanen digu gure Herriaren alde jokatu dugunean eta gure kulturaz jabetu garenean?

Heziketa geldituerik gabeko bidea da. Egunero hartan salatu egin beharko dugu. Eta hartan gure nortasuna aberastu.

Horregatik, iruditzen zaigu, bai irakasle eta bai irakasleak batera joan behar dutela. Haren artean galak aztertzen eta menderatzen. Hesi da ikastaro berria. Hazi botata dago. Lore ederrak sor daitetela!

BATZU

Beste denda batean ikusi dugu euskaraz egindako kartelito bat. Badagoz bi, Non datorrena?...

Loiolako Herri Irratiak beste hauz bat eman dio gure Udai Etxe-ari. Apotzagako jaiak zirela honelaxe entzun izan ahal dugu: «Arrasateko Apotzaga hauzoen...». Zer nahi dute Irratiakoe? Dadukagun ura oraindik jende gehiagorekin baina? Ala, Apotzagan ba al dago urik?...

—Arrasatera ere iritsi dira Debako Nuklear Etxearen kontra egin diren kalkamoniak. Baina honekin ez dugu nahikorik. Arazo honetaz jabetu behar dugu eta honetarako beste bide batzu badagoz: Aranza-

di taldeak prestatutako eraskina irakurtzea, herria hitzaldi bat antolatzea (noizko?)...

MENDIAGA

hernani


JEOBAREN LEKUKOAK

Hernanin ireki berria dute heren biltokia. Ongi etorriak Euskal Herria jatorragoa, eta euskaldunak pertsonago egiten saiatzen badira. Gure hizkuntza ahaiztze dutela entzuna dut. Dudarik gabe Rikardo Arregiren hitzak hauek ere ontzat ematen dituzte, «uste zuten kristau ta latino izatea gauza ber bera zela».

HAUR-ZAINDEGIA

«Atxietas»en haur-zaitegi berria irekia dute. Honek bigarrena egiten du eta dirudienek ezia azkena izanen. Lehenengoan erdal hezikera hartzen badute hontan zein herrian bizi garen kontuan hartuko ahal dute! Agian bai. Eratzailak guraso talde bat izanik ez gurek zalanztarik behar, baina bildur...

GAZTE BI



Etorkizuna, elkar~lanean moldatu dezakegu.

- Gure erriaren ekonomi ta industri bideak zabaldurik, lan-toki berriak idekiaz.

- Bakoitzaren ondasunari begiraturik, arte ta irakaskintza-lanean erriari lagunduz.

- Zure gordailuen irabazia sendoturik, illabeteroko zozketa guztietan esku artuaz.



LAN KIDE TYRREZKIA

CAJA LABORAL POPULAR

SOCIEDAD COOPERATIVA DE CREDITO

Denok elkar lanean

BOST AXOLA ERRIA

ZIKUNAGAKO ERMITA

Urtero-urtero festa ederrak ospatzen ziren Hernaniko Zikuhaga auzoan. Atsegiñak eta erriaren gogozkoak.

Zikuhagan, Hernaniko Zaindari den Ama Birijña dago. Aimbeste urtetan gurtu dugun, gurtu duten Ama Birijña.

Gertatu den gauza batek ordea (gauza larria) Ama Birijñarengandik urrutiratu egin gaitu hernaniarrok.

Baifia, egin dezagun istoria pixka bat.

Duela urte gutxi arte, zelaier eta aundia zegoen Ermita inguruan, bide bat ere bazen Ermitara, Hernaniko Golezuetara doan bideabaliari lotzen zailona.

Orduan ez zen ostroporik, Festak esan bezain ederki ospatzen ziren, erri bidea ondo zetozen, batez ere auzokentzat, eta Hernaniko erria leial ibiltzen zitzaion Ama Birijñari.

Baifia ez da pakea dena, ez da borondate ona dena, ez da elkarizketarako gertu egotea dena, ez da azaltzen diren arazoei irtenbide arrazoiakoa bilatzea dena.

NAGUSIAREN JOKABIDEA

Aldaketa batzuk egin bearrean arkitu ziren Ermitatik gertu dagoen lantegi bateko agintariak. Aldaketa aldaketa ziren eta arazoak ekarri zituzten guzientzat. Guzientzat ez, guretat, erriarentzat bakarrik. Ez, aipatu dugun lantegi orrentzat. Onek, nai adina egin eta nai adina desegin du. Komeni ala, ekin.

Lantegia aunditzeko asmoak zituzten bertako agintariak eta ekin zituen aunditzeari.

Leenbizi, erri bidea errepikatuz, leen aipatu dugun zelala artzen ari ziren. Nunbait, bidea zegoen gabea, ostropoak sortzen zizkion eta inorri galdetu gabe, inorenik elkarizketarik izan gabe, inoren baimenik gabe, bidea egurrez bete eta bereganatu zuten.

Leen erriarentzat balio aundikoa zen bidea, egun, guztiz artu du Papelera onek.

UDALETXEAREN JOKABIDEA

Legex kanpoko egoera au ikusiaz, erriko gazte batzuek eta Hernaniko Udal-Etxeak erabaki batzuk artu zituzten Papeleraren ekinizari aurka eginez. Azkenik, gauza Ayuntamentuaren alde galditu zen Iruiñeko Sala de lo Contencioso Administrativo de la Audiencia Territorial de (S.C.A.A.T.P.), eta, orain, Madrilgo Auzitegi Gaiturraren (Tribunal Supremo) erabakiaren zai gaude.

Zer gertatuko da Madrilgo Iruiñekoan, irizikoak badira? Alegia, Iruiñen bezala, lantegiko agintarien joera ez dela zuzena izan, okerra eta erriarentzat kaltegarria izan dela pentsatzen ez badute? Iruiñekoek eta guk uste dugun bezala gertatuko baliat, Papelerak bere gauzak erretiratzan aisi bearko luke bidea leen zegoen bezala utzi arte. Esate baterako, erriarentzat bidea garbi utzi bearko luke.

Zelala egurrez betetzen aisi zela, esan dugu leenago. Bai ederi zabaldu ere egurrak. Egun, ez dago lekurik, karretarik joanda, Ermita aurreraino autoz joateko. Au gogoan artuta, erraz penisa dezakegu guztiok, egurrak Ermita aldera noraino ekarri dituen industria onek.

Emen ez da dena bukatzen ordea. Fuel-Oil kaldera aundi bat ere ipini du Ermitatik amar edo amabi metroara.

ERRIGIZONAK ETA ELIZGIZONAK

Egoera olek gogoan arturik, Hernaniko Erriko-

ZIKUNAGA

ELIZAREN BERRI

FEDE HEZILEEN BATZARRA DONOSTIAN

Joan den irailaren hastapenean, Donostiako Apezpikuteigiko Pastoralgintzak antolatutako, eta Felix Garitano buru zela, aste betez, batzarre interesgarria ospatu du Gipuzkoako Kristau Fede hezle talde batek.

Batzarrea, Donostiako La Salle-n egin zen, eta ehun eta hamarren bat (110) batzarkide bildu zen.

Hizlarien artean, Freijo, R. Alberdi, Albistur, Zuberio anderea eta ziren. Batzarrearen azken aldera, han zen Setien apezpikua ere, eta alde aurretik esateko, batzarrearen konklusioak, oro har, onartzeko.

14-18 urtetako gazteetxoan hezientzat zen antolatuta batzarrea. Eta apaiz, fraile, monja eta zenbait sekular zen batzarrean.

Batzarre interesgarria noien, eta halaxe zen. Ideologia mailan, zen-

baiz etzabada argigarri azaldu zen. Zenbaitak, esate baterako, posturik pertsonalista bezala aurkitzen zuten hezilearen egiteko: gatzetxoak ezagutu, haren mailan jarri, balore pertsonalak hainbat hartu... Beste zenbaitak, aldiz, egitura alderdia baloratzen zuten: bizi gareneko gatzete antolamendua ikus erazi gatzetxoari, gatzete horren zapaltzaile kutsu eta muna, gatzete horrek babesten eta indartzen duen giza klase borroka. Alderdi honi buruz, hitzaldi gogor eta egiafria botatu zuen Freijok.

Beste alderdi batetik ere, sortu zen etzabada aski interesgarri. Batek batez ere, Jeinkoaren izena zuen ahotan hitzetik hortzera, eta eginkizun hori bera ezarri nahi zion gatzete hezleari. Aldiz, joera nagusiak beste alderdi batetik josten zuten gatzetxoaren heziketak nondik joan behar duen proposatzen: gatzete hezlearen egiteko, zuzenki fede arazoa ez, baina giza baloretarako heziketa litzateke. Hain zuzen, zelako kristeua litzateke bat, gizon izan ezean?

Pedagogi bide bezala, ikus-entzun

eta esperimental bideak proposatu ziren: diapositiba, musika eta bide.

Liturgizunak ere egunoro egiten ziren. Aski poliki borobilduak.

Batzarre interesgarria noien. Eta gauza bera berrituko dut amaitzeko. Puntu bizirik harrotu ziren, eta erabili ere, bizi-bizi.

Behin behar eta, antolatzaileei zorionik sutsuenak zor zaizkietelakoan gaude.

Beharko litzatekeena, batzarrean harrotu ziren eta izkirib honetan aipatu ditugun zenbait puntu praktikan ipintzea: gatzetxoaren heziketak bizi dugun gatzete tankera zentzu kritikoak ikusteko laguntza behar luke izan: politika bizikera, lantegi, familia, Eliza, e.a., hor, erakunde eta egitura arrago horretan, sartu litzateke. Eta jakina, zentzu kritikoak, borroka zentzu esan nahi du. Errealitate oso eta bizian zuzarturiko borroka noski.

AMUNSA

PORTUGALGO ELIZA (eta III)

Mozambikoko erriari buruz, zer jokabide erabili nai duten, garbiri azaldu dute ogeita amalau Mixiolariak esan «AGIRI» sonatuan.

Mozambikoko Eliza dala eta, zerbaite esan nai izan dute. Ez daude isillik egoteko. Interesgarria, «AGIRIAN» diotena:

«Ez da zuzen jokatzea, besteren akatsak azaldu eta salatu eta erri arazoetan geroko gure postura agertu ondoren, geure buruaz, Elizako seme eta Mixiolari garen aldetik, beste orrenbeste egingo ez bagenu. Bai, te guk kristauok ere, uts egin dugu. Elizari zor diogun maitasuna ukatzea litzateke, aitorituko ez bagenu pekatari garelara eta penitentzia, eten gabe, Jeinkoagana bihurtu bearrean arkitzen garelara. Mozambikoko gertakizunak, Konkordak eskatzen duen gauzarik bearrena izan daiteke, Elizak umilki bere utsegiteak aitorzea».

AKATSAK

1) Elizako talde aundiak Agintari eta Estaduarekin bat egitoki jokatu du. Eliza eta Estaduaren sasi-ekontza ori, batik bat, Konkordatoak eta Mixio Kompromisoak zekarren. Mozambikoko erri eta jendea portugues bihurtzeko, nola ala guztiok parte artu dugu, Zapalketan, gure eskua luzatu dugu, bai, Europako zibilizazioa ezarriaz mozambiketarrei, afrikar izatera eta kultura aintzatzotzat bear aibat artu dugu. Portugalgo Legeei itsatsi eta lotuta bizi izan gara Afrika aldeko lurraldeetan.

2) Mozambikoko Elizaren misio-lan eta jardunak «Ezpirituaren indarrean» baino geiago, lurreko indar Aalmen eta Pribileiotan finkatu eta oinarrituak zeuden. Erriaren miseria eta premi aldetian, ez dugu bear bezala, gure egitekoak zenez parte artu; agintari zapaltzaileen ondasunaz atsegin artu dugu; misio lana, auek ordaintzen zituzten, agintari eta Jauntxoaren probetxurako leialak izan ginduzten.

3) Zoritzarrez katoliko batzuk, auek artean apostoladutzan lan egiten zutenak ere bai, afrikarren zapaltzaile gertatu dira, auek bidegabekeriak zurrupen (espatatzen) zituztela. Makurrago dena, maila desberdineko apaizek, egin bearrekoak ez eginez, edota, ongi jokatzan zutelakoan, zapalketa eta represioaren erudun dira.

4) Afrikar gizonari zegokion nortasuna ez zion eman Elizak politika, gizar eta Kultura mailan. Bere egite eta jokotzen, erriak nundik nora ibili bear zuen erakusterakoan, kolonizatzaile izan dela, uste dugu.

5) Jerarkiarako arteko bat edo bestek edo askotok, erria zapaltzen zuten egoera, erakunde eta ordena ontzat ematen zuten; bear zen garaian eta bear bezala ez ziren mintzatu Mozambikoko erri eta eskubideak gogorean aspiztzen zituzten; erriaren aurka egitoki zuzengabekeriak salatu zituztenen alde, ez zuten bear aibat jokatu, ez eta babestu ere, erasotutak arkitu zirenean.

6) Guztien aurrean, Jerarkia arteko batzuen jokabide-postura, saldukeri-tralioa izan da, bai Mozambikoko erriarentzat, eta baita Eliza bera rentzat ere.

NOLAKO ELIZA

Mozambiket kanpora jaurtiki zituztenen «Agiria»ren bukaeran. Zer Eliza opa duten Mozambikoko adierazten digute.

1) Pobrea, apala, egizale eta gizonen zerbitzari izango den Eliza nai dugu; Mozambikoren mamitu eta eta onekin konprometitako Eliza; beartuengaren Kristoren aurpegi ikusi nai duen Eliza; askatasunaren ezaguerri eta seifale izango den Eliza.

2) Apalik eta kenen aundiz aitoru bear dugu ez dugula Kristorekin leialki jokatu Mozambikoko Errian.

3) Bein eta betirako desegin bidez Estaduarekin aibesteraño lotzen gaituzten Konkordatu eta «Misio Elkargoa».

4) Eliz Jerarkia berritu egin bear da eta baztertu eta zokoratu Koloniako agintariekin bat egitoki jokatu dutenak.

5) Ebanjelioaren izenean eta Elizaren onerako beren borondatez utzi bear dituzte beren lan lekual orrelako Eliz Agintariak.

6) Erlijioa eta Mixiolari taldeetatik kendu bear dira nabarmen eta agrian Portugalen Kolonismoaren alde jokatutakoak edo Afrikarren asmo zuzenen aurka ibillitakoak.

7) Erriaren onerako eratu bear dira Mozambikoko Eliz Egiturak, eta mundu guztien aurrean Mozambikoko Erriaren askatasunaren alde jokatu.

—oOo—

Zerbait laburtuta, Fazismoak Mozambiket erbestaritutako ogeita amalau mixiolarien «AGIRI»-ko burutak nagusiak agertu dizkizut.

Arren, aundi xamarrak esan dituztela eta ez urra zure soñekoak. Elizaganako maitasunak eragina, guzia esan dute, Eliza maita dutelako, doaz berriro Mozambikera. Erri onen ondoan eta Erri onekin, bere bizirik eskeinitoki dituzte, Kristoren Elizari bere utsegite eta akatsak kentzen aaleginduz, Eliza au Kristoren arpegi eta irudi obeagoaz ager dadin. Sekula santan, Elizaganako begirune-errespetoz, salaketa tikiena ere egiten ez diozun kristau anaia, zure Eliza Mixiolari auek baino geiago maita duzula uste aal duzu?



Otsein

PENSATU ETA EKIN

Frigo tresnak - Ontziak garbitzekoak

Labadorak superantomatikak - Ur berogailuak

Lehor tresnak - Estufak

IPAR EUSKAL HERRIAN

EUSKAL GIZARTEA ETA ESKOLA

Eskuinetik edo ezkerretik nun ez den erdiko bidetik eta abantzi gabe, gaineko eta azpiko bideak ere badirela, hainitz gauza entzuten dugun gure inguruan eskolari buruz. Aldi hontan hiru iritz edo opinione agertu nahi genezke, agian beste norbaitek ere zer edo zer aterako daukulo esperantzarakin.

IKASLEEN ARTEAN

Duela zenbait denbora hontan, huna batzuetan zer entzuten dugun: "Ez dut gehiago ikasteko gogorik. Nere bihotz eta gogo guziaz, nun ez den gorpuz guziaz herriaren alde lanean arizan nahi dut. Hortakotz bide hoberena langilearen erdian lan egitea dela deritzat, eta beraz estudioak utzirik alde bat lotzen naiz beste sail bati".

Langileen artean herriarentzat lanean aritzea biziki asmo ederra. Ba ote daki ikasle gazte horrek E.A.B. inguruko 150 midikuetan 10 euskaldunik ez dela? Eta ez erran hori kosta aldeko gertakari bat dela; Hazparden, Euskal-herri barne barnean 5-eta 4 ez dira euskaldunak, Donapaleun 4 marexletarik 3 ez dira euskaldunak. Abokat, arkitekto, dentista eta beste hainbat ofizio salletan gauza bera gertatzen zaiku, frangotan alpatu dugun lantegi buruzagien kasua ahanzi gabe (250-eta 20 euskaldun gure eskualdean).

Batzuek erranen daukute hori gure gizartearen (sozietatearen) esturturek nahi duten gauza bat dela eta hauek mugitzen ez direno hola irauenen duela arazo hunek: buruzagiak kanpotarrak eta herri xheha euskalduna. Nahi dut baina idaritzen zaut horren kanbiatzeko esturturen aldatzearekin batean, gizon bakotxaren aldakuntza (aintzina-arazte) behar dela xerkatu. Badago nun zer egin eta ikasle jakintsuen behar gorria badauka gure herriak.

BESTE BI AGERPEN

Egia da ere ikasle hainitzentzat ez dela ikasbide hoberena usaiako sail orokor haren segitzea. Berezik teknika eta laborantza eskolek beste biderik irekitzen dute, beren herriaz grifiatua den gazte bati oraindik gehiago. Sail hoietan da beharbada errexkien hatxemaiten lan bide bat gure eskualdean sobera goiti joan ezin duenarentzat.

Zenbait urrun joaiten badira herriaren alderako atxikimenduan, gehienak berriz, guti axolatzen dira gauza hortaz. Begien eta gozoen irekitzeko bide berri batzu urratu dira azken denbora hauetan, gazteak oharitu ditzen beren in-

gurumenari: Club Pays Basque, ikaslen egun, ibil-aldi edo kantaldi, delako 10 %-en baliatze eta beste. Bide hortarik ibili behar da euskaldun ikasleek, beren herriaz, kezka handiagoa, zentzunagoa, izan dezaten, bai eta elgarrekin, denak batean lehia ditzen zerbaiteen egitea hunen alde.

ERAKUNDE OFIZIALETAN

Beste bi kezka sor-arazi daukit joan den asteko "Herria" kaseta hunek ber berak (n.º 1.258). "Euskara ez dadien gal" kanpaina dela eta, huna zer dugun erraiteko. Segur eder dela hoinbeste sinadura, denak gauza beraren alde, gauza hori euskara eskoletan sar dadin eskatzeko delarik. Baina sinadura horiek zer kanbiamentu ekarriko ote daukute? Ahurtarra bat ilusio-ne berriz ere...

Eta, eguneroko egintza eta xede eder horren artean, edo beste nolazpeit erraiteko, mota guzietako eskola ofizialen eta euskal gizartearen arteko arroila zein handia den agertzeko, bi etsenplu ttipi emanen ditut.

Jaztik geroz, eskola mundutik zein urrun zebilan ohariturik, irakasleak bala ditalaizke orenen 10 %-ez ikasleri agertzeko zer mundutan bizi diren. (Hau beste zenbait helbururen artekoa da). Horri esker egin izan dituzte bisita batzu lantegi edo erakustoki batzuetara, entzun gure herriko jende langile zenbait edo ikertu gure herriaren geroa. Hau dena zenbeit eskolatan. Eta besteetan? Zer egiten da? Huna euskal-herri barne barneko C.E.S. batean (ez dut erranen laikoala ala katolikoa den) zer ikertze edo ikuste mota proposatuak izanen diren, irakasle batzuen arabera, aurtengo urtean: meatzek edo lurpeko minek zer itxura aldatze ekarri duten Ingalaterrako paisajean, Homeroren denboran zer berrimenda erabiltzen zuten grekoek eta holako...

Eta nik galdatzen dut: gure herriatik arrunt aparte bizi diren hoinbeste irakasleek (eta ez beti kanpotarrek) nola jakinen dituzte herriaren bizia eta kezak zer diren, gure herriatik arrunt aparte bizi den erakunde batek manatzan dituen artean?

Bigarren etsenplua hau da: kostako hiri edo batetako auzapezaren sinadura ba omen da, besteak beste, delako ageri hortan. Ederki. Baina hiri hortako kontseiluak 10.000 libera xahar (100 F berri) ikastolen alde emanen dituen bitartean nik ez dut sinadura hortan sineste haundirik.

Eta etsenpluak aise segi genezake. Baina bego hortan, arazo hau ere.

BASA ESKOLAK DIRELA



Azkenik, min egin dautan gauza bat ere, nahi nuke hemen, ximpleki aipatu. Urruñan badago eskola katoliko bat euskararen alde bermatzen dena. Biziki ontsa eta ordu zen! Holako hainitz nahi nituzke ikusi. Artikulu hortan (Herria n.º 1.258) erraiten da "ez da orai euskara bazterretikako basa eskola batzuetan erakasten bakarrik". Bistan da basa eskola horiek ikastolak direla!

Alta bada ikastolarik eta bururaino joaiteko Seaska-rik ez baltz izan ipar euskal herri hontako 500 haurrek ez zuten euskal eskolarik ezagutuko (orain arte) eta beste eskoletan ere bai laikoetan, bai katolikoetan ez guren euskal klaserik ikusiko. Euskal kulturaren gizon haundi zenbaitek, urteetan barna, egiten dute lan, baina ez dut uste, behin ere euskal herriak, populuak, herri xheak frangotan, ikastoletan bezelako lanik egin duenik. Eta ikastolen inguruan egiten ari den lana bestea bezain bali handikoa zaiku dudarik gabe.


Uste dut ikastolen alde lan egiten duten (eta zenbat lan) jendeek ez zutela holako xistakorik meixi. Bestalde badakigu gaurko irakasleek, beharrik badirela basa eskolak, hoietan sortzen baitira pedagogia eta ikas molde berriak eta ez eskola ofizialekin, gehienetan. Beraz beharrik baditugula basa eskola horiek, egiazko euskal fruituaren alorra horiek baitira.

Eskola katolikoak xantza bat badi gure eskualdean (laikoak ere badiu bereak) eta hau da euskaldunen begietan hurbilago, bertakoago agertu izan dela. Baina xantza horrek irauu dezan bide beretik jokatu behar da, nahiz bide hau ez den errexa (ikastolena errexa ez den bezala): herriaren beharrei erantzun bat emaita, hizkuntzaren aldetik, bizi moldearen aldetik. Baina hortako gure bizi moldeaz behar genuke denek elgarrekin mintzatu, ikusteko nundik jinik norat ari garen. Aintzinamenduak badirela alde hortarik, beharbada. Baina egiteko hainitz ere oraino.


R. KANBLONG



Iratxen zinta-dantzan



Udalekuan biribilketan



Borobilean kontu kontari



Igerirako berotzen